



**hh**  
hik hasi

**Iñaki Alonsori elkarrizketa**  
**Sastrakadia naturagune Kontxa Eskolan**  
**Pedagogo sortzaileak: Ramon Flecha**  
**Esperientzia bat SKOLAEn**  
**Judoaren ekarpena Gorputz Hezkuntzan**  
**Komunikazio Ez Bortitza: gida eta app-a**  
**Ana Urrutia**



# EBALUAZIOA



UXUE ALBERDI  
EIDER EIBAR

# P Z A

elkar

UXUE ALBERDI • EIDER EIBAR  
Pozari buruzko haurrentzako  
ipuin jostagarria

# AURKIBIDEA

GAIA / 10

## EBALUAZIOA

Erpin asko dituen gaia da ebaluazioarena. Duen konplexutasunagatik irakasleen kezka iturri izan ohi da eta azken urteotan ikuspegi anitzetatik aztertu izan da. Produktuaren emaitzen ebaluazioa egiten ohituago gauden arren, prozesuen ebaluaziora pasatzeko erronka mahai-gainean dago gaur egun, eta gero eta ohikoagoa da ebaluazioaren ikuspegi osoago baten aldeko hautua egitea.

## ELKARRIZKETA / 20

### IÑAKI ALONSO

Haurren eskubideen defentsarako erakundeetan lanean ibilbide luzea egin du Alonsok. Langile klaseko familia batean jaioa, beken bidez, Zuzenbidean lizentziatu zen, eta Nazioarteko Zuzenbidean espezializatzeko masterra egin zuen ondoren. Hainbat urtez, nazioartean laguntza humanitarioko zereginean jardun ondoren; orain Save The Children-eko haurtzaroko politiken arduraduna da EAEn.

**Argitaratzailea:** XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

**Erredakzioa:** Ane Aranburu, Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoz.

**Erredakzio batzordea:** Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

**Aholkulariak:** Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.  
**Administrazioa:** Uxue Ugartemendia.  
**Diseinua:** Grafik.

**Maketazioa:** Xangorin.  
**Inprimategia:** ANtZA S.A.L  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2018-11-12).  
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

## 5 EDITORIALA

Eskolek ahalmen handia dutelako

## 6 ALBISTEAK

## 10 GAI NAGUSIA

Ebaluazioa

## 18 ELKARRIZKETA

IÑAKI ALONSO

“Egoera ekonomikoaren ondorioz, familia batzuetako seme-alabei euren garapenerako aukerak ari zaizkie murrizten”

## 24 ESPERIENTZIAK

Kontxa naturagunea

## 28 PEDAGOGO SORTZAILEAK

Ramon Flecha

## 32 EKARPENAK

Gure esperientzia SKOLAEn; berdintasunerako hezten

## 34 GALDEIDAZU

MARKEL URRUTIA

Zer ekarpen egiten du judoak?

## 39 ARGITALPENAK

## 40 PROPOSAMENA

Komunikazio Ez Bortitzaren gida eta app-a

## 42 ATZEKO ATETIK

Ana Urrutia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia





# Eskolek ahalmen handia dutelako

## editoriala

EBIDENTZIEK ARGI ERAKUTSI DUTE POSIBLE DELA LORPEN AKADEMIKOAK BERMATZEA IKASLE GUZTIEI, ETA GIZABANAKO GUZTIOK DAUKAGULA FUNTSEZKOA DEN GUZTIA IKASTEKO GAITASUNA.



**T**okatzen zaion familiaren eta ikasteko dituen aukeren arabera, haurren etorkizuna baldintzatzen ari garela. Horixe dio elkarrizketa nagusian Iñaki Alonso Save The Children-eko EAeko haurtzaroko politiken arduradunak. Zein etxetan jaio eta zein eskolatan ikasi determinantea ari da bilakatzen umeez izango duten garapen pertsonalerako nahiz profesionalerako. Datuek hori diote. Badirudi ekonomikoki zaugarriak diren familietako haurrek ez daukatela gaitasunik ikasteko eta bizitzan aurrera egiteko. Badirudi bakoitza bere familiaren posizio sozioekonomiko eta kulturaren arabera soilik gara daitekeela.

Garai batean eskolak zeukan funtzio konpentsatzailea gaur egun ez duela betetzen. Hori ere badiu Alonsok. Sozialki bazterrean dauden familietako haurrek ere sekulako potentziala dutela, baina maiz ikusezin bilakatzen direla, ez duela haiengan inork sinesten, eta hezkuntza-sisteman ezarrita dagoen eredu pedagogikoak ez diela haien premiei erantzuten.

Baina eskolek ahalmen handia dute. Harkaitz Zubiri EHUko irakasleak Ramon Flechari buruzko artikuluan azaldu bezala, aski frogatuta dago hezkuntza arloko desberdinkeria soziala gaindi daitekeela eta ikasle guztiei kalitate oneko hezkuntza bermatzea posible dela. Besterik da, zein diskurtso izan den nagusi aspaldian.

Pedagogiaren arloko autore askok uste izan dute eskolek ez dutela eragin handirik desberdinkeriak gainditzeko eta ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza bermatzerako orduan. Baina, Flechari buruzko artikuluan irakur daitekeenez, ebidentziek argi erakutsi dute posible dela lorpen akademikoak eta bizikidetzara osasuntsua bermatzea ikasle guztiei. Baldintza egokienetan, gizabanako guztiok daukagula funtsezkoa den guztia ikasteko gaitasuna. Denok gara ditzakegula oinarrizkoak diren trebezia instrumental guztiak.

Hori horrela dela frogatzen duen esperientzia arrakastatsu bat ezagutzeko aukera izan genuen azaroaren 24an Donostian, Bartzelonako metropoli-eremuko ingurunerik pobre eta gatazkatsuenetako batean dagoen Joaquim Ruyra eskola publikoko kideen eskutik. Bertako ikasleen % 92k jatorri atzerritarra dute eta % 40k ez dute ikasturte osoa bertan egiten. Aurreiritzi eta estereotipo guztien kontrara, ordea, bertako ikasleek emaitza oso onak lortzen dituzte. Ikasle denak euren onena ematera bultzatzen dituzte. Maximoen curriculumak ezartzen dute ikastetxean, espektatiba altukoa ikasle guztientzat. Helburu dute haur horiek ez daitezela egon gaur egun dituzten baldintzetan, edo are okerragoetan, bizitzera kondenatuta. Alegia, haur horiek ere garapen pertsonal eta profesionalerako aukerak izan ditzatela.

---

**“Zertan ari gara gu, inmigratuak euskal munduan integratzen, ala geure buruak asimilazioaren zuloan barneratzen?”**

Paulo Iztueta





## ERRIGORA EGITASMOAK UZTA OPAROA EMATEN DARRAI

2013an sortu zenez geroztik, Errigora egitasmoak euskararen irakaskuntza lagundu, babestu, hauspotu, duindu eta hobetu du Nafarroako Erriberan. Aurten Lodosako Ibaialde ikastolako gimnasioan berogailua jarri dute; Vianako Erentzun ikastolan errotulazioa, kartelak, *router*-a eta wifi puntu berriak jarri dituzte; Tuterako Argia ikastolan igogailua, hamar gelatarako hornikuntza eta errezelak gela guztietan; AEK-ko ikasleek matrikulazioa arintzeko beka sistema erabili dute; eta Sortzen-ek D ereduaren aldeko kanpaina zuzenak eta euskarazko tailerrak eskaini ditu.

Bost urte bete dira Errigora martxan jarri zutenetik. Erriberako ekoizleen produktuak saltzen dituzte. Auzolan handi bati esker, kontsumitzaileak ekoizleari zuzenean erositako prezioan jasotzen du jakiz beteriko saskia. Modu horretan, saski bakoitzeko diru ekarpena egiten diote eskualdeko euskalgintzako hiru eragileri: Sortzeni, AEKri eta ikastolei.

Bost urteren ondoren, balorazio oso ona egin dute etekinak jaso dituztenek. Alor ekonomikoaz gain, egitasmoak giza ekarpen handia egin duela azpimarratu dute. Izan ere, diru laguntza jasotzeaz gain, auzolana eta elkartasuna adieraztea sekulakoa dela irizten dute. Oso garrantzitsua iruditzen zaie ikasleek auzonala eta elkartasuna zer diren ikastea. Gainera, "ikusten dutenean Euskal Herri osotik hemengo produktuak eskatzen dituztela, bitxia egiten zaie, baina, modu horretan, haien egunerokotasuna aberastasun bihurtzen da".

Helduak zein txikiak, denak barnebiltzen dituen egitasmoarekin 14.000 saski saldu dituzte aurten eta euskalgintzara bideratzeko 175.000 euro lortu dituzte.

## IPARRALDEKO ESKOLAK GREBAN

Lapurdikoa, Nafarroa Behereko eta Zuberoako eskolek greba egin zuten azaroaren 12an Frantziako Gobernuak egin nahi dituen aldaketen kontra protesta egiteko. Baionan 300 lagunek egin zuten manifestazioa. Sindikatuek salatu dute gobernuak 2.600 irakasle postu baino gehiago kendu nahi dituela kolegioetan eta lizeoetan. Salaketa hori egiteaz gain, beste eskari batzuk ere egin dituzte: unibertsitaterako sarbiderako *Parcoursup* sistema kentzea, baxoaren erreforma bertan behera uztea eta *Konfiantzaren eskola batentzat* lege proiektua kentzea (urtarrilean onartu nahi dute).



## EAE-KO ESKOLA JANTOKIETAKO IRREGULARTASUNAK ARGITZEKO LANETAN DABILTZA

2016. urtean Lehiaren Euskal Agintaritzak frogatutzat eman zuen zortzi enpresak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola publikoetako jantokien kontratua edo merkaturia "elkarren artean banatu" zutela 2003-2011 eta 2013-2015 bitartean. Ebatzi zuen enpresek kontratuak banatzen zituztela, elkarren artean lehiatu gabe, eta kontratuaren gehienezko prezioa eskatuz. Enpresen jokabide irregularraren ondorioz, % 30eko gailuratu eragin zen jantokiko kuotetan, *El Mundo*-k ezagutarazi zuenaren arabera. Hau da, zortzi urtez jantokira joan zen haur bakoitzeko 1.040 euro gehiago ordaindu ziren.

Are gehiago, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak iradoki zuen enpresek ezin zutela hori egin administrazioaren parte hartzerik gabe. Hori dela eta, 2003-2015 bitartean sailburu izan ziren Anjeles Iztueta, Tontxu Campos eta Isabel Zelaa Eusko Legebiltzarrean izan ziren urriaren amaieran, Cristina Uriarte egungo sailburuarekin batera. Denek berretsi zuten ez zela "erantzukizun politikorik" egon. Areago, guztiek berretsi zuten "unean uneko araudia" bete zutela.

# HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

## MADRILGO GOBERNUAK LOMCE LEGEARI EGIN NAHI DIZKION ALDAKETEK ERAGINA IZANGO DUTE EUSKARAREN IRAKASKUNTZAN



Madrilgo Gobernuak LOMCE Hezkuntza Legea aldatzeko aurreproiektua prestatu du. PPK ezarritako Hezkuntza Legeak “hezkuntza komunitatean eta gizartean eragindako protesta uholdea” aintzat hartuta abiatu du prozesua. Pedro Sanchezen gobernuaren helburua “LOMCEk eragindako arazoak” konpontzea da, besteak beste, errebalidak ikasleen artean sor dezakeen arrakala, ikastetxeen hierarkizazioa eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzerik eza. Erreforma berri honen oinarria 2006an Jose Luis Rodriguez Zapatero presidentearen gobernuak onartutako LOE Hezkuntza Lege Organikoa da. Arau hartan jasotako neurri asko berreskuratuko ditu proposamen berriak, hala nola: ebaluazioaren izaera hezitzailea eta jarraia, hezkidetzaren sustapena eta erlijioaren eraginik eza espedientean.

Hizkuntzen gaiari dagokionez, euskarari eragingo lioketen bi puntu ditu proposamen berriak. Batetik, irakats-hizkuntza ezartzea erkidegoen esku utziko du. Murgiltzeari atea zabalik utziko dio. Gaztelaniaz ikasteko eskubidea aipatu dute testuan, baina erkidegoen eskuetan utzi dute “zer proportziotan” eman eskolak gaztelaniaz eta hizkuntza koofizialean. Areago, Ministerioak aukera gisa utziko du erkidego barruan proportzio desberdinak jartzea, “egoeraren” arabera egokitzeko.

Hizkuntza mailarekin lotuta beste berritasun bat ere badago proposamenean: eskola bakoitzak aztertzea zein den bere ikasleen gaitasuna, “horrela berma dadin ikasle guztiek lortzen dutela eskatutako gaitasuna gaztelaniaz eta hizkuntza koofizialean”. Gai horri lotuta, Eusko Jaurlaritzak zehaztu egin nahi du ikasleei zer gaitasun eskatu euskaraz eta gaztelaniaz: B2 maila ezarri nahi du helburutzat derrigorrezko eskolaldiaren amaieran.

Euskarari lotutako bigarren puntuak bultzatu nahi du eskolek aztertzea ikasleek euskaraz eta gaztelaniaz duten maila, “beharrezko maila” badutela egiaztatzeko. Bietako batean “hutsuneak” baldin badaude, “konpentsatzea” nahi du gobernuak. Euskal Herriko kasuan, gehienetan euskara da “hutsuneak” dituen hizkuntza ikasleen gaitasunari dagokionez, baina, formula horrekin, aukera ireki dute gaztelaniaz zaillasunak ditzuten ikasleei ere “konpentsatzeko” neurriak jartzeko.

## OPOSIZIOEN EREDUAREN GAINEAN KEZKAK DAUDEN ARREN DEIALDI BERRI BAT EGIN DA

DBHrako eta Lanbide Heziketarako oposizioak deitu zituen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurten 1.511 lanpostu egonkortzeko xedez, eta 405 toki bete gabe geratu ziren, azterketak gainditu gabe geratu zelako jendea. Esate baterako, Matematikako azterketara 202 irakasle aurkeztu ziren eta 50ek gainditu zuten: % 24k. Antzeko kasu gehiago ere izan dira. Datuak ikusita, kezka sortu da. Lan eskaintza publikoa egiteko beste era batzuk behar direla adierazi dute sindikatuek eta beste hainbat eragilek. Elkarrekin Podemosek deituta, gaiari buruzko argibideak eman zituen Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Cristina Uriartek.

Sektorean enplegua egonkortze aldera, hutsik geratutako tokiak albiste txarra direla onartu zuen eta LEPak irakasleentzat “erakargarri” izateko estrategiak ondu behar direla uste du. Gainerako alderdi politikoak ere bat etorri ziren oposizioen eredu berrikusteko premiarekin.

Edonola ere, beste oposizio batzuk deitu ditu datorren urterako Hezkuntza Sailak, sindikatuekin bilera egin ondoren: Haur eta Lehen Hezkuntzako 1.825 lanpostu eskainiko ditu, lege eskain daitekeen postu kopururik handiena. Deialdia urte hasieran egingo da eta orduan zehaztuko dituzte proba egunak.



## HIK HASI-REN HURRENGO JARDUNALDIAK OTSAILAREN 16AN IZANGO DIRA, ANIZTASUN SOZIO-EKONOMIKOA, KULTURALA ETA LINGUISTIKOA HIZPIDE HARTUTA

Hik Hasik antolatuta, urriaren 24an 220 pertsona bertaratu ziren Donostiako EHUko HEFA fakultatera Joaquim Ruyra eta Sansomendi ikastetxeetako hezkuntza-proiektuak ezagutzera. Kataluniako ikastetxeko kideek ikas komunitatean oinarritutako bere proiektu pedagogikoa aurkeztu zuten. Baldintza zailetan ere arrakasta lortzeko aukera badagoela erakutsi zuten. Eta Gasteizko Sansomendi ikastetxekoek bi esperientzia esanguratsuren berri eman zuten: Ausarten Kluba eta Gatazken kudeaketarako eredu dialogikoa. Ikastetxeko bizikidetza hobetzen lagundu duten proiektuak biak ere.



Elkarren esperientziak ezagutzeak sortzen duen aberastasuna ikusita, Hik Hasik beste jardunaldi bat antolatzeari ekin dio. Otsailaren 16an izango da eta landuko den gaia "Aniztasun sozio-ekonomikoa, kulturala eta linguistikoa" izango da. Izenburu horrekin berarekin argitaratu berri da 33. monografikoa eta interesgarri ikusi da gaiaren inguruko jardunaldi bat egitea. HUHEZLko hainbat irakasleren aurkezpenekin batera bi ikastetxetako esperientziak emango dira ezagutzera: Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxekoa eta Eibarko Arrateko Andra Mari ikastetxekoa. Irakasleen, gurasoen eta ikasleen ahotsak entzuteko aukera izango da.

Izen ematea urtarrilean irekiko da [www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus) webgunearen bidez.

## HIK HASI ETA HAZI HEZI DURANGOKO AZOKAN IZANGO DIRA BERRIKUNTZEKIN

Abenduaren 5etik 9ra bitartean ospatuko da 53. Durangoko Liburu eta Disko Azoka eta Hik Hasiko mahaia bertan izango da: Goienkale 86an. Labetik atera berritan irakurgai izango dira *hik hasi*-ren 233. zenbakia eta *Hazi Hezi*-ren 27. zenbakia, biak abenduko zenbakiak. Beste pare bat berrikuntza ere izango dira: *Aniztasun sozio-ekonomikoa, kulturala eta linguistikoa* monografikoa (33. na) eta *Gaxuxa* liburua. Horrez gain, hezkuntzan, irakaskuntzan eta heziketan lagungarri izan daitezkeen hainbat material egon dira mahaian.



## PEDAGOGIA SISTEMIKOA GURASOENTZAT

Familiarekin lotura duten gatazken ebazpena lantzea helburu hartuta, formazio berri bat jarriko du martxan Euskal Herriko Pedagogia Sistemikoaren Eskolak, Bilbon. 2019ko urtarrilean hasi eta uztailean amaituko da. 7 modulutakoa izango da, hileroko larunbat batean emanda. Gaztelaniaz izango da. Izena emateko: <http://www.escuelasistemica.com/formacion/inscripcion?id=76>



# HIZPIDE IZANGO DA

## BELDUR BARIK LEHIAKETAKO IRABAZLEAREN ETA PARTE-HARTZAILE GUZTIEN BIDEOAK IKUSGAI DAUDE



Beldur Barik programaren barruan antolatzen den bideo lehiaketako irabazlea "Laztana" izan da. Lehiaketa Beldur Barik programaren barruan kokatzen da eta urtero egiten da gazteekin indarkeria sexista prebenitzeko asmoarekin.

Aurtengo edizioko leloa "Beldur barik jarrera partekatu" izan da eta 265 lan aurkeztu dira. Parte-hartzaileek sortutako lanaren bidez zera adierazi behar zuten: nola neska eta mutilek ezberdintasun egoerei aurre egiten dieten Beldur Barik jarrerarekin; alegia, errespetua, parekidetasuna, askatasuna eta autonomia, elkarkidetzeta eta indarkeria sexistaren bazterketa irmoa adierazten dituzten jarrerekin. Espresio motari dagokionez, denetarik lanak aurkeztu dira: abestiak, argazki-muntaiak, artelanak, dantzak, galdetegiak, hitzaldiak, idazlanak, laburmetraiak, marrazkiak eta *stop-motion*-ak. Aurkeztu diren lan guztiak [www.beldurbarik/org/eu](http://www.beldurbarik/org/eu) webgunean daude ikusgai.

Sortutako eduki eta interakzioekin, hausnarketa eta eztabaida prozesuak ireki nahi dira. Helburua da jarrera eta jokabide sexisten eraldaketarako espazio positibo eta erreferentea sortzea, non kultura matxistarekin hausten duten pertsona eta ekimenak ezagutzera ematen diren. Lehiaketa Emakundek antolatzen du eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien zein EUDelen babesa eta beste erakunde batzuen laguntza jasotzen du: Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza saila, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren Gazteria Zuzendaritza, EHU eta EITB. Egitasmoa 2009an sortu zen berdintasunaren aldeko euskal udalen Berdintasun sarearen barruan.

## HARPIDETU 'HIK HASI'-N ETA URTEBETEKO 'HAZI HEZI' ALDIZKARIAK OPARI

Abenduan *hik hasi*-ko harpide egiten direnentzako eskaintza berezia zabaldu da: *Hazi Hezi* aldizkariaren urtebeteko aldizkariak opari. Haziera eta heziketako euskal aldizkariak jasotzeko aukera zabaltzen da horrela.

*hik hasi*-ko harpidetzak 50 euro balio du urtean eta 10 aldizkari jasotzen dira. Horrez gain, Hik Hasik antolatzen dituen jardunaldietan eta udako topaketetan prezio bereziak izaten dituzte harpideek, eta baita Hik Hasiren gainerako materialetan ere. Abenduan harpidetza egiten dutenek opari berezi bat jasoko duten trukean: *Hazi Hezi* aldizkariaren urtebeteko aldizkariak opari. Urtean lau aldizkari kaleratzen dira, urtaro bakoitzean bat. Haziera eta heziketari lotutako gaiak jorratzen dira bertan.

*Hazi Hezi* eta *hik hasi*... familia eta eskola... heziketari garrantzia ematen dion komunitatea da. Bertako partaide izateak merezi du.

**Hazi Hezi eta Hik Hasi**  
haziera eta heziketarako euskal aldizkariak

Urtean 4 aldizkari 20 €  
Urtean 10 aldizkari 50 €

**GARAPENAREN ANTOLATZAILEAK**

**GAUR hik hasi aldizkarian harpidetza eginda, Hazi Hezi-ko urtebeteko aldizkariak opari!**

Izen Abizenak: \_\_\_\_\_  
Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Hazi Hezi eta Hik Hasi... familia eta eskola...  
heziketari garrantzia ematen diogun komunitatea



Erpin asko dituen gaia da ebaluazioarena. Duen konplexutasunagatik irakasleen kezka iturri izan ohi da eta azken urteotan ikuspegi anitzetatik aztertu izan da. Produktuaren emaitzen ebaluazioa egiten ohituago gauden arren, prozesuen ebaluaziora pasatzeko erronka mahai-gainean dago gaur egun, eta gero eta oihartzun handiagoa hartzen ari da ebaluazioaren ikuspegi osoago baten aldeko hausnarketa. *hik hasi-k*, batez ere, Lehen Hezkuntzatik aurrera egiten den ebaluazioaren inguruan sakondu du Lasarte-Oriako Berritzeguneko zuzendari Oskar Viguerarekin. Horrekin batera, Ikastolen Elkartean abian jarri duten Ebaluazio Integralerako ereduaren nondik norakoak jaso ditu eta Arrankudiagako eskolan gai honen inguruan egindako ibilbidea plazaratu du.



# GAIA:

# EBALUAZIOA

Ikasitakoa ebaluatzeaz gain, ikasteko ebaluatzea xede  
Lehen eta Bigarren Hezkuntzan paradigma aldaketa

Lehen Hezkuntzatik aurrera eta, batez ere, Bigarren Hezkuntzan, ebaluazioaz pentsatzen jartzen garenean, oro har, gisa honetako hitzak etortzen zaizkigu gogora: azterketa, froga, nota, tentsioa, urduritasuna... Esan daiteke tradizio pedagogiko baten ondorio izan daitekeela hori. Izan ere, ebaluazioaren ikuspegi bat gailendu izan da orain arte; hain zuzen, ebaluazio egiaztatzailea, sailkatzailea eta estandarizaturia izan da nagusi. Baina ebaluazioa ez da hori bakarrik, ebaluazioaren barenan ulertu behar ditugu honakoak ere: behaketa jarraitua, ebidentziak jasotzea, ikasle-irakasle *feedback*-a, autoebaluazioa eta autorregulazioa...

Testuinguru horretan, gaur egun, irakasleen kezka handia ere bada ebaluazioa. Izan ere, ebaluazioak ikasteko era baldintzatzen duela gauza nabaria da, baina konplexua ere bada, eta horregatik, ikuspegi anitzetatik aztertu izan da. Oskar Viguera Lasarte-Oriako Berritzeguneko zuzendariarentzat ere “beharrezkoa” da ebaluazioaren ikuspegia zabaltzea. Hiru gida-lerro azpimarratzen ditu ebaluazio esanguratsu bat eraiki ahal izateko: “Ingeleseztik, preposizioa aldatuta, oso ondo adierazten dira hiru alderdiak eta intuitiboki ulertzen dira; *Evaluation for, of and as learning*. Euskaraz esanda, ikaskuntzaren ebaluazioa, ikaskuntzarako ebaluazioa, eta ebaluazioa ikaskuntza bezala”.

Ikaskuntzaren ebaluazioaz Viguera dio profesionalak

jakin behar dutela ikaskuntza hori ikasleengan noraino iristen ari den eta hori oso inportantea dela gaineratzen du: “Ikaskuntzaren ebaluazioak balio behar digu curriculume-ko helburuak eta bestelakoak lortu diren edo ez jakiteko. Gero hori nola egin behar den eztabaida daiteke, baina lortu denaren gaineko informazio horri ezin zaio garrantzia kendu”.

Ikaskuntzarako ebaluazioa izango litzateke bigarren alderdia Viguera hitzetan: “Ebaluazioarekin prozesua bera ere hobetzea lortu nahi dugu. Izan ere, ebaluazioa ez da bakarrik ikasleek zer ikasi duten eta noraino iritsi diren esatea. Baizik eta prozesu osoa hartu behar dugu kontuan eta eragile desberdinen parte-hartzearekin, ikaskuntzarako ebaluaziotik aterako ditugu prozesua emankorrago egiteko gakoak”.

Eta hirugarrenik, ebaluazioa ikaskuntza bezala ulertu beharko genuke Viguera iritziz: “Ikasleak noraino iritsi diren ebaluatzeaz gain, eta ikaskuntza-prozesua ebaluatzearekin batera, oso inportantea da ebaluazioa ikaskuntza kompetentzia bezala ikustea. Eta ikasleak izango dira protagonista. Zergatik? Lortu nahi dugulako ikasleek ikastea nola ebaluatzen den, irizpideak zeinen inportanteak diren, ebidentziak nola jasotzen diren, zein diren indarguneak eta zein ahulguneak, nola ikasten duten hobeto, zer den gehien kostatzen zaiena... Eta hori nola egiten da? Praktikarekin.

## GAIA: EBALUAZIOA

Ikasitakoa ebaluatzeaz gain, ikasteko ebaluatzea xede

Norbere buruarekin lan eginda, baina baita besteekin ere”. Zentzu horretan, autoebaluazioa eta kideen arteko ebaluazioa aipatu ditu Berritzeguneko zuzendariak ebaluazioa ikaskuntza bezala praktikan jartzeko alderdi nabarmen gisa.

Hortik abiatuta, Viguerak dio pixkanaka gero eta protagonismo gehiago hartzen ari direla ikaskuntza prozesuko alderdi ugariaren gaineko hausnarketa ebaluazioa: “Tradizio batetik gatoz, eta egia da nagusiki ikasleek zer ikasi duten jakiteko ebaluatu izan dugula. Eta horretan zentratu izan gara. Baina ikaskuntza eraginkorra izatea bada helburua, garrantzitsua da egiten duguna nola egiten dugun eta zergatik eta zertarako ere hausnartzea”.


### Konpetentziak eta ebaluazioa

Konpetenzietan Oinarritutako Hezkuntza abian jarri zentrik, Viguerak aipatzen du eztabaida ugari izan dela ebaluatu beharreko konpetenzien inguruan: “Konpetentziak gaur egun bi motatakoak dira; diziplina baitako oinarritzko konpetentziak eta zehar-konpetentziak. Diziplina baitako konpetentziek nolabait inertziaz lehen bezala ebaluatzen jarraitu dutela esan dezakegu. Aldiz, zehar-konpetentziek ez zuten tradizio hori eta hor kokatzen da benetako erronka. Izan ere, haurrek konpetentzia guztiak garatzea nahi dugu, baina egituran arloekin jarraitzen dugu, irakasleak arloetakoak izaten jarraitzen dute, ez konpetentziakoak. Horregatik, erronka handia da zehar-konpetentziena, ikaskuntza eta ebaluazioaren ikuspuntutik”.

Konpetentziekin ebaluazioaren sofistikazio maila asko igotzen dela dio. Edukiak erreferentzia zirenean, ebaluazioa horietan zentratzen zen. “Orain edukiak ezagutzea, datuak, gertaerak, edota printzipioak gogoratzearekin ez da nahikoa. Konpetentziak izateak ezagutza horiek testuinguru ezberdinetan erabiltzen jakitea eskatzen du. Beraz, ez da nahikoa ezagutza bat duela egiaztatzea. Ezagutza hori testuinguru esanguratsuetan eraginkortasunez erabiltzeko gai dela ere baieztatu behar da”.

### Kanpotik egiten den ebaluazioa

Berritzeguneko zuzendariak azpimarratzen du tresnak ere asko baldintzatzen duela ebaluatu daitekeena, eta zentzu horretan, kritika egin izan zaie ebaluatzeako modu jakinei, batez ere kanpo-ebaluazio estandarizatueterako erabili izan direnei: “Azterketa partzialak direla kritika egin zaie. Konpetentzia guztiak ez dituztela neurtzen; hain zuzen ere, nolabait neurgarriagoak izan daitezkeen konpetentziak bakarrik neurtzen dituztela; Matematika, Zientziak eta Hizkuntzak. Eta oso modu konkretuan neurtzen dituzte, gainera, item idatzi batzuen bidez. Haatik, badira tresna horren bidez baloratzea oso zaila diren konpetentzia oso garrantzitsuak: haurraren sormena, kritikotasuna, autonomia edota kolaboratzeko gaitasuna, batzuk aipatzearren”.



Vigueraren ustez, tresna guztiak dituzte beren mugak, eta ez dago tresna perfekturik. Horren aurrean, tresna desberdinak erabiltzera animatu nahi ditu eragileak: “Kontuan izan behar dugu kanpo-ebaluazioak behar konkretu bati erantzuten diola, baina ebaluazioa hori baino gehiago da. Hala ere, protagonismo handia hartzen ari da, eta zenbait momentutan arriskua egon daiteke, ikaskuntzaren gida bihurtzeraino. Eta hor erreduktionismoa dago, eta ikaskuntza prozesu osoa baldintzatzen du”.

Baina kanpo-ebaluazioak baditu helburu onak ere Vigueraren iritziz: “Ebaluazio diagnostikoak ez ditu neurtzen alderdi guztiak baina, hala ere, neurtzen dituen horiek baliotsuak izan daitezke kontrasterako. Adibidez, gure ikastetxean proiektu batekin oso gustura egon arren, behar ditugu frogak estandarizatu baten pareko emaitza kontrastagarriak ere. Helburua ez da ikaslea ebaluatzea, baina bai jakitea gure metodologiak zein ahulezia dituen edo zein indargune. Ebaluazio diagnostikoak egin beharko luke ikaskuntzaren ebaluazioa”.

Zentzu horretan, Berritzeguneko zuzendariak dio kanpo-ebaluazioaren inguruan eztabaida sortu izan dela eta zenbait momentutan egon izan dela frogak horiekiko “arbuioa”. Eta askotariko arrazoiak aipatzen ditu: “Adibidez, galdetu izan da zer egiten duen Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak (KGEE) hezkuntza arloan, eta horri lotuta zer dagoen frogak horien atzean. Edota kritikatu izan da zenbait konpetentziari balio handiagoa ematen zaiola beste batzueri baino. Baina kontuan izan behar dugu konpetentziak ez direla kontrajarriak. Zentzu horretan, ikuspegi osoa bilatu behar dugu, pertsona osoak hezi behar ditugulako. Horretarako, kanpo-ebaluazioak ematen dizkigun datuak ere baliatu behar ditugu”.



## Ebaluazioaren ikuspegi ideologikoa

Ebaluazioak erpin asko dituela azpimarratzen du Viguerak eta alderdi profesionalari lotutako ebaluaziotik haratago, bada adituek aipatzen dutenez, ideologikoagoa den beste alderdi bat: “Guztiaren gainetik errealistak izan behar dugu, eta kontuan izan behar dugu gure gizartean klasifikatzeko joera oso zabaldua dagoela. Pertsonak klasifikatzeko eta mailakatzeko joera horrekin ohitu gara eta nolabait ‘naturalizatu’ egin dugu; normaltzat hartzen dugu, ia konturatu gabe. Egile eta aditu ugari adierazi du ebaluazioa, edo kalifikazioa, kasu askotan kontrol tresna gisa erabili izan dela. Baina ikaskuntza barne prozesua da, ikasleengan garatzen dena eta ezin da kanpotik inposatu kontrolaren bidez. Kalifikazioaren erabilpen kontrolatzaile edo sailkatzaile hori ‘ideologikoa’ dela esan daiteke. Ez du berez justifikaziorik ikaskuntzaren ikuspuntutik. Aditu batzuk azpimarratzen dute hor botere-harremanak daudela inplikaturik. Kontrolean eta boterean oinarritutako harremanak nagusitzen badira gela giroan, ikasleentzat ikaskuntza bigarren edo hirugarren planora pasatzen da. Lehenengo planoan kalifikazio honetan ondo ateratzea dago”.

Zentzu horretan, konpetitibitate hori oso barneratuta daukagula aipatzen du Viguerak eta zenbait ebaluazio eredutan horixe dela oinarrian dagoena: “Izan dira garaiak non, kalifikazioak eta ebaluazioaren alderdi sailkatzaileak, protagonismoa hartu duten. Egun, ezin dugu esan erabat gaingaitu dugunik. Urtero gelako ikasleak sailkatzerakoan ‘distribuzio normaltzat’ hartzen dugu kalifikazioaren araberako sailkatzea ikasleak. Eta berdin gertatuko zaigu hurrengo ikasturtean, nahiz eta taldeak erabat ezberdinak izan. Edozein talde hartuta, beti bilatuko dugu *Gauss kanpai* ezagunaren banaketa eredu ateratzea, alegia, ikasle batzuk onak, beste batzuk txarrak eta tartean, batezbestekoan gehienak. Eta hori oso barneratua daukagu. Zenbait gurasok ere, ez guztiak, baina zenbaitek jakin nahi dute eskema horretan non kokatzen den euren haurra”.

Konpetentziekin, hori aldatu egin beharko litzatekeela dio Viguerak. Izan ere, azpimarratzen du oinarritzko konpetentziak herritarrentzat direla, eta suposatzen da guztiok konpetenteak izan behar dugula behin derrigorrezko hezkuntza bukatu ondoren. Orduan, zenbait testuingurutan galdera hau egin daiteke: “Zer zentzu du derrigorrezko hezkuntzan esateak haur bat hoberenen artean, edo txarren artean edota batezbestekoan dagoela? Denok lortu beharko genuke konpetenteak izatea. Urritasunengatik edo gaixotasunengatik premia bereziak dituzten ikasleak izan ezik, beste guztiak derrigorrezko hezkuntza bukatzean konpetentziak garatuta izan beharko litzukete”.

Zentzu horretan, apurto egiten da egitura sailkatzaile horrekin. Berritzeguneko zuzendariaren esanetan, “derrigorrezko hezkuntzan tresnak eman behar dizkiegu hiritar gisa garatzeko eta beren bidea egiteko, eta ulertu behar dugu

etapa honetan ez gabela profesionalizatzen ari”. Baina horra iristeko aurretik bidea dago egiteko: “Hainbat kasutan, konpetentziekin gertatzen zaiguna da eskema sailkatzaile hori erreproduzitzen ari gabela. Eta derrigorrezko hezkuntzan zentzurik ez badu, beste etapetan ere ez, eta adi egon behar dugu Haur Hezkuntzan zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Ikastetxe askotan hausnarketa hori hasi dira egiten, eta beren praktiketan islatzen”.

Testuinguru horretan ulertu behar dugu ikastetxe batzuetan horren kontra jotzea eta esatea ez dutela ebaluazio sailkatzaile hori egingo. Viguerak dioenez beraien argudio ideologikoa zera da: “Euren haurrek ez dutela behar sailkatuak izatea; umeak direla eta ume izateko eskubidea dutela, sailkatuak edota besteekin konparatuak izan gabe, eta ez dute ikusten ikasleak sailkatzeko beharrik”. Berritzeguneko zuzendariak jarrera honen aurrean ondorengo gogorazten du: “Ez dugu ahaztu behar, hala ere, profesional bezala informazioa behar dugula; ebidentziak behar ditugu gure ikasleen ikaskuntza gidatzeko, zailtasunak izan baditu alboan egoteko, eta tresna desberdinen bidez bidea egiten jarraitzen laguntzeko”.

## IKASKUNTZARAKO EBALUAZIOAREN GAKOAK

Ikaskuntzarako ebaluazioan, eraginkortasunez aritzeko honako gakoak aipatu ditu Berritzeguneko zuzendariak:

1. Espektatibak partekatzea: ikaskuntzaren espektatibak askotan inplizituak izaten dira, eta ebaluazioan oso garrantzitsua da ikaskuntzarekin lortu nahi diren helburu zehatzak ikasleekin, irakasleekin, gurasoekin eta gainerako profesionalekin partekatzea.
2. Kalitatezko ebidentziak lortzea: ebaluazioa ebidentzien joko bat da, eta ebidentziak oso inportanteak dira. Baina zenbaitetan ebaluatzen dugun ikaskuntza oso maila baxukoa, memoristikoa edo intuizioan oinarritutakoa da. Kalitate altuko ebidentziak lortzen Saiatu behar dugu.
3. Ikasle-irakasle *feedback*-a: oso garrantzitsua da ebaluazio hezitzailea garatzeko, eta definizioz esan nahi du egindako lanaren gainean hitz egitea, bueltatzea, ondo egin duena aipatuz, eta hobetu beharreko alderdiak izendatuz. Gainera, *feedback*-a oso garrantzitsua da irakaslearentzako, irakaskuntza ereduaren ahuleziak eta indarguneak ulertzeko balio diolako.
4. Autoebaluazioa: batetik, ikasi duenaz eta noraino ikasi duen jabetzeko estrategiak, eta bestetik, autoezagutza sustatzeko eta ikaskuntza estiloa identifikatzeko.
5. Kideen arteko ebaluazioa: ikasleen arteko ebaluazioa laguntza moduan ulertu behar dugu eta ikerketa desberdinek erakutsi dute ikasleak onurak lortzen dituela.

## GAIA: EBALUAZIOA

Ikasitakoa ebaluatzeaz gain, ikasteko ebaluatzea xede

# Ebaluazio Integralerako eredua

Ikastolen Elkartean ebaluazioaren gaia sakonean aztertzen dihardute azken urteetan. Zigor Ibarzabal Elkarteko Hezkuntza arduradunaren arabera, “ebaluazioak irakasleak izan dezakeen esku-hartzea eta ikasleak jaso ditzakeen mezu inplizituak baldintzatzen ditu eta, horregatik, duen garrantzia izugarria da”. Azken urteetan egindako hainbat hausnarketaren ondorioetatik abiatuta, ebaluazio eredu berri bat garatzen ari dira Ikastolen Elkartean eta dagoeneko 33 ikastola ari dira Ebaluazio Integrala deitu dioten eredu berri honen ezarpenean trebatzen; 17 ikastola hastapeneko taldean ari dira lanean eta 16 ikastola jada ezarpen fasean daude.

Zentzu horretan, eta eskola aldi guztian zehar jarraikortasuna izan behar duten irizpideak identifikatzeko, ebaluazioaren gaia ikaskuntza aldiko etapa desberdinetan dute aztergai. Aipatzen duenez, helburu bikoitza jarri diote euren buruari: “Alde batetik, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arteko ebaluazio eredu berri eta koherente bat sortzea izan da helburua. Eta bestetik, irakasleak ebaluazio osoago bat egiteko prestatzea”.

Hainbat hausnarketatan oinarritu dute eredu berri honen abiapuntua, Ibarzabalen arabera: “Lehen Hezkuntzan egin genuen lehen hausnarketa Maria Galdeanoren eskutik. Irakaslearen praktika erreflexiboan eta ebaluazio hezigarrian oinarritu zen ekimena. Aldi berean, Mikele Aldasorok *EKI* proiektuaren ebaluazioaren oinarriak aztertu eta garatu zituen. Eta ildo beretik, iazko ikasturtean Haur Hezkuntzako *hIZAN* proiektuaren barruan egin genuen 8 ikastolarekin ebaluazioaren inguruko lanketa”.

Ibarzabalek aipatzen duenez, “ikasleei esanguratsuak diren balorazioak egiteko, hobetzeko laguntza emango dien mezuak adierazteko eta egiten ari diren hori balorean jartzen duen ebaluazioa egiteko, tresna eta estrategiak behar dituzte hezitzaileek”. Zentzu horretan, eredu berri hau ondorengoan oinarritzen da: “Lehenengo eta behin, zer eta zertarako ebaluatuko dugunaren gaineko planifikazioa dago, eta horrekin batera ebidentziak noiz eta nola jasoko ditugun zehazten da. Abiapuntu horretatik, jarduera tipologia ezberdinekin konpetentziak baloratzen dira eta horien ebidentzien erregistroak egiteko bitarteko digitalak eskaintzen zaizkie irakasleei. Horrez gain, ebaluazio hezigarria praktikatzeko baliabideak eskaintzen dira, eta ildo beretik, metakognizioaren garrantzia eta praktika lantzen

da; ikaslearen autoebaluazioan, autoezagutzan eta ekitean, betiere sormenean begirada jarritz”.

### Autoebaluazioaren garrantzia

Autoebaluazioaren gaiari garrantzi berezia ematen diote eredu berriaren ere. Izan ere, Ibarzabalen arabera, “ikaskuntzaren garapena irakaslearen ikuspegitik ez ezik, ikaslearen erreflexiotik ere baloratu behar da, autoebaluazioak bere prozesua autogestionatzeko eta bideratzeko aukera ematen baitio ikasleari”. Horrekin batera, irakaslearen *feedback* hezigarriaren garrantzia azpimarratzen du. Eta zentzu berean, honakoa gaineratzen du: “Autoebaluazioak, eta kideen arteko ebaluazioak ikasleen jarrera eta motibazioan izan dezakeen garrantzia azpimarratu behar dugu”. Autoebaluazioaren prozesua borobiltzeko, metakognizioaren praktika ezinbestekotzat jotzen du: “Ikaslea erronka, egoera, proiektu eta abarrei aurre egiten hastean, gaiaren gainean aurretik zuen ezagutzaren aktibazioa gertatzen da (zer dakit?), prozesuan zehar jasotzen ari denaren gaineko hausnarketa (nola ari naiz? motibazioa? zailtasunak?) eta bukatzean, dakienaren gaineko balorazioa egiten du (zer, nola eta zertarako ikasi dut?).”

### Ezagutzak ebaluatetik, konpetentziak ebaluatzerara

Ikastolen Elkartean Ebaluazio Integralerako eredua ezartzeko abiatu duten prozesuarekin, ezagutzak ebaluatetik urrats bat eman eta konpetentziak ebaluatzerara pasa direla aipatzen du Ibarzabalek: “Ebaluazioa borobildu egin dugu, ikasleek bizitzarako behar dituzten trebeziak landu eta baloratzeko”. Zentzu horretan, konpetentziak ebaluatzeko garatu dituzten estrategiek ondorengo lan-ildoak jarraitzen dituzte:

- Egoera desberdinei erantzuteko ikasleak informazioa jaso, ulertu eta baloratu beharko du, taldean erabakiak hartu eta horretarako norbere iritzia adierazi, besteen proposamenak entzun, solasean aritu, azken adierazpen bat sortu, etab.
- Irakasleei egiteko horietan ikasleak nola moldatzen diren behatzeko jarduera gakoak eta ebaluaziorako irizpideak eskaintzen zaizkie.
- Irakasleak irizpide horietaz jabetzeko ahalegina egiten da, haiekin zehaztuz edota partekatuz egiteko horiek arrakastaz betetzeko behar dituzten ezaugarriak eta jarrerak.



## GAIA: EBALUAZIOA

- Ikasleak bere ikasteko eraren, ikaskuntzaren eta ikasteko duenaren kontzientzia hartzeko autorregulazio-jarduerak eskaintzen dira.

- Ikasleen autorregulazioan irakasleen betekizuna oso garrantzitsua da: helburuen irudikapen edo errepresentazio egokia egiten lagunduz, huts egiteak hautematen eta haien arrazoiak ulertzen lagunduz, beraien autoebaluazioa ardatz hartuta, gogoeta egitera eta erabakiak hartzera bideratuz.

- Ikaskuntza prozesuko etapa bakoitzak berariazko ezaugarriak dituela kontuan izatearekin batera, ebaluazioak Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arteko irizpide bateratu batzuk izan behar ditu.

Elkarteko Hezkuntza arduradunaren arabera, “hezkuntza-aren paradigma aldaketa ezin da gertatu ia bere osotasunean ebaluazio kuantitatiboan oinarritzen bagara. Ebaluazioa ikaskuntza prozesuaren osagai banaezina da eta hasieratik bukaeraraino eraman behar da”. Ildo horretatik, aipatzen du ebaluazioaren ikuspegia zabaldu egin behar dela. Urte askotan zehar, ikaslearen ebaluazioan zentratu garela gaineratzen du, baina ikuspegi oso bat izateko hiru eremu hauek ebaluatu beharko genituzke Ibarzabalen iritziz: erakundearen ebaluazioa, irakaslearen ebaluazioa eta ikaslearen ebaluazioa. Zentzu horretan, hiru arloetan urratsak ematen ari dira Ikastolen Elkartean: “Ikaslearen ebaluazioaren eremuan daukagu esperientzia gehien, baina kompetentzietan lan egiteak ebaluazioan ere aldaketa handiak eskatzen ditu; irakaslearen ebaluazioan ere aditu desberdinen ekarpenetatik abiatuta, galdetegi bat osatu dugu; eta hirugarrenik, erakundearen ebaluazioan trebatzeko hainbat

ikastoletan abian jarri dugu Hobekuntza Pedagogiko Iraunkorra deitutako proiektua”.

Prozesu hori guztia modu koherente batean egiteko ebaluazio boletín eredu bat diseinatu dute eta ebaluazio eredu hori gaia lantzen ari diren ikastoletan erabiliko dute. Zentzu horretan, “prozesu bizia” izaten ari dela gaineratzen du Ikastolen Elkarteko ordezkariak: “Egin ditugun proposamenak ezartzen, frogatzen eta hobetzen ari gara. Etengabeko hobekuntza eskatuko digun gaia izanik, urrats kualitatibo handiak ematen ari gara”. Horri lotuta, eta gaiaren garrantzia ikusita, egiten ari diren lana hezkuntza komunitatearekin eta gizartearekin partekatzeko, ikasturte honetarako Ikastolen Elkarteak antolatuko dituen jardunaldi pedagogikoak ebaluazioaren inguruan izatea aurreikusiten dutela aipatu du pedagogia zuzendariak.

#### Kanpo-ebaluazioa ikaskuntzaren hobekuntzarako

Kanpo-ebaluazioaz galdetuta, Ibarzabalek aipatzen du “duten garrantzia” eman behar zaiela: “Gure ustez, ikaslearen ikasketa-prozesuaren ebaluazioa irakasleak eta ikastolak egiten du, hau da, pertsonarekin lanean ari den profesionalak garatzen du. Hala ere, sistemaren hobekuntzak proposatzeko, ikastetxe ezberdinetan eragin eta hobekuntza proiektuak gauzatzeko, gure ikastolako datuak beste batzuekin alderatzeko... beharrezkoak direla uste dugu. Gure estrategian beti azaldu dugu kanpo-ebaluazioak ikastetxearen eta sistemaren diagnostikorako baliatu behar ditugula eta inoiz ez ikaslearen ebaluazio bat egiteko”.



# Arrankudiagako ibilbidea

**H**ezkuntza arloan ibilbide luzea egin du Nekane Otsoak. 1987an hasi zen Arrankudiagako eskolan irakasle lanetan, eta zuzendaritzan daramatza 20 urte inguru, “kontua galduta” duela barre egiten du. Ebaluazioaz hitz egiterako orduan, helburuak argi dituztela aipatzen du: “Ikaslearen ongizatea eta ikaslearen arrakasta bilatzen dugu guk, bai maila akademikoan eta baita maila afektiboan ere. Ongizatea ikuspuntu afektibo batetik begiratuta, edo harremanen ikuspegitik. Eta gero, zer esanik ez, arrakasta akademikoa bilatzen dugu. Hori da ebaluazioa eginez lortu nahi duguna, eta horretarako ebaluatzen dugu”. Otsoaren hitzetan, bi alderdiak elkarre-raginean daude eta horregatik garrantzitsua da bi aldeak kontuan izatea. Izan ere, arlo afektiboan arazoak baldin badaude, horrek zuzenean eragingo du arlo akademikoan eta kontuan izan behar dugu Otsoak aipatzen duenez, alderdi ugari egiten dutela maila afektiboan: “Demostratuta dago, alderdi afektibo txarto badabil, nahiz eta *kabriolak* edo mila gauza egin, ume bat ondo ez badago bere buruarekin eta albokoekin, irakurketan seguruenera arrakastarik ez duela izango. Horregatik ikuspegi hori oinarri-oinarrikoa da gure eskolan”.

Zentzu horretan, haurraren testuinguru guztia kontuan hartzen saiatzen dira: gurasoak, neba-arrebak, haurra bera... Azaltzen duenez, “nolabait esateko, gu semaforo gorriak detektatzen ibiltzen gara eta semaforo gorri gehienak normalean arlo afektiboan agertzen dira. Horrek ematen digu denbora gehien, baina guretzat inportantea da taldea ondo kohesionatuta egotea, taldean denak ondo egotea, harremanak sendoak izatea, arazorik ez egotea euren artean...”. Eta horren jarraipena egiten dute irakasle-taldean, astero egiten dituzten zikloko bileretan.

Hori oinarri hartuta egiten dituzte ebaluazio kuantitatiboa “ezinbestean” eta ebaluazio kualitatiboa, Otsoak aipatzen duenez: “Ebaluazio kuantitatiboa egiten dugu eta notak ipintzen ditugu derrigorrez ipini behar direlako. Baina aspalditik egiten dugu ebaluazio kualitatiboa eta guretzat horrek dauka garrantzia”.

Ebaluazio kualitatibo horren oinarrian, prozesua da Arrankudiagan ebaluatzen dutena: “Guretzat prozesua da inportantea. Non hasi den ikaslea, noraino heldu den, bidean zer gertatu zaion, nola lagundu diogun, non joan den bera bakarrik, non aurkitu dituen oztopoak, oztopo ho-

rietan noren laguntza jaso duen, laguntza hori ondo etorri zaion edo ez, nik irakasle bezala pentsatu edo egin dudan horrek arrakasta izan duen... Eta modu horretan ikaslearen ebaluazioaz gain, ikaskuntza prozesuaren ebaluazioa ere egiten dugu, eta hori irakasle taldean egiten dugu”. Eskolako zuzendariak azpimarratzen duenez, taldearen ikuspuntua beti da inportantea eta egingo dutenaren gaineko hausnarketa beti irakasle taldean egiten dutela gaineratzen du.

## Prozesuaren etengabeko behaketa

Ebaluazioaren ikuspegi oso bat jaso ahal izateko, etengabeko behaketa egiten dute Arrankudiagako eskolan. Ez dago azterketarik, eta zentzu horretan, bat datoz beraien metodologia eta ebaluazioa, Otsoak aipatzen duenez, “guztiak zentzua hartuko badu, bi alderdiak bata bestearen atzetik doazelako”. Horregatik, eta batik bat maila akademikoan, garrantzi berezia ematen diote Arrankudiagan edozein prozesu hastean, ikasleek dituzten aurreiritzi eta aurrezagutzak identifikatzeari: “Guretzat ezinbestekoak dira eta saiatzen gara beti era positibo batean baloratzen; zer dakien egiten, zer maila daukan... eta ez hainbeste zer falta zaion edo zer oztopo dituen. Dakienetik abiatuko gara, eta orain dakien hori garatzen joango gara. Eta hor kokatzen da gure hurrengo zeregina”. Prozesuaren garapena eraginkorra izateko, behin aurrezagutzak jakin ostean, planifikatu egiten dute prozesu guztia nola garatuko duten, eta amaieran noraino heldu diren ikusiko dute. Baina bideari arreta berezia ipintzen diotela gaineratzen du: “Bidean sortuko diren oztopoak eta arazoak — beti era positibo batean ikusita —, presente ditugu prozesuan bertan, eta horiek gaintitzen laguntzeko esku-hartze bat prestatzea izaten da gure helburu nagusietako bat. Ziklo bileretan egiten den lana izaten da hori”.

Ildo beretik, arlo desberdinetako ebaluazio adierazleak identifikatzeko lan handia egin dutela aipatzen du zuzendariak: “Guk ebaluatzen dugunean, jakin behar dugu zeren arabera ebaluatzen dugun. Ikasle honek arazoak dituenean, edo ikasle hark honetan aurreratu duenean, zeren arabera ebaluatzen dugu? Ez dugu egiten umea zigortzeko, eta ezta gaintitu gabe geratzeko ere, baizik eta jakiteko umea non dagoen eta nola lagundu behar diodan nik leku horretatik aurrera egiten. Hori da ebaluazio adierazleen izpiritua eta horiek identifikatzeko lan handia egin dugu eskolan”.





### Metaezagutza eta autoebaluazioa lantzen

Arrankudiagako eskolan ikasleen metaezagutza lantze-ari garrantzi berezia ematen diotela aipatzen du eskolako zuzendariak: “Lan handia egin dugu metaezagutza lantzeko ekintzetan, alegia, ikasleak jarraitu duen prozesuaren inguruan pentsatu eta hori berbalizatzeke gaitasuna lantzean; zer egin duen lehenengo, zer gero, non eduki dituen arazoak...” Eta ikasleekin hori lantzeko erabiltzen dituzte, batez ere, ikasleen lanak eta lan horien erregistroak. Otsoak dioenez, lan hori egiteko ebidentziak behar dituzte eta saiatzen dira ebidentzia horiek arlo guztietakoak izaten. Modu horretan, jaso egiten dituzte ikasleen lanak, materialak, elementuak, ikaslearen mailaren adierazle direnak. Gero, bitarteko horiek erabiltzen dituzte ikasleari prozesuan zehar eman duen bilakaera erakusteko eta hor haurra konturatu egiten da, Otsoaren esanetan, “gai dela, egin dezakeela”. Autoebaluaziorako dinamikak ere egiten dituztela aipatzen du zuzendariak, eta alderdi hori indartzeko, ikasturte honetarako bi saio dituzte programatuta Neus Sanmartí autoebaluazioan adituarekin.

Eta ebaluazioaren gaien hausnarketa betean jarraitzen dute. Otsoak azaltzen duenez, badaramatzate bi urte formazio proiektu batean murgilduta Areatzako eta Zeberioko eskolekin batera. Konpetentzien eta ebaluazioaren gaineko

hausnarketa egiten ari dira eta proiektu honekin honako gogoetak egiten ari dira: “Konpetentziak ebaluatzeak zer suposatzen du? Orain arte egin dugun bezala egiten jarraitu behar al dugu? Zerbait aldatu behar al dugu? Konturatu gara gauza asko bat datozela egiten dugun moduarekin, baina gogoeta fase horretan murgilduta gaude”.

### Kanpo-ebaluazioa

Otsoarentzat kanpo-ebaluazioa behar-beharrezkoa da, kontraste lana egiten laguntzen duelako. Baina gaur egungo ebaluazio diagnostikoak lan hori egiten ez duela laguntzen aipatzen du Arrankudiagako eskolako zuzendariak, eta honela argudiatzen du: “Lehenengo eta behin, oso partzela konkretuak ebaluatzen ditu eta, nire ustez, eskola hori baino gehiago da. Eta gero, gainera, partzela konkretu horiek baloratzeko orduan ere, tresna konkretu bakar bat erabiltzen du: azterketa. Eta gure ikasleek ez dute azterketarik egiten, ez daude azterketak egitera ohituta. Orduan, bi irtenbide geratzen zaizkizu: bata, emaitzak berdin zaizkit esatea; eta bestea, azterketak egiten trebatzea. Eta azkenean, zertan bihurtzen da ebaluazio diagnostiko hori? Guretzako ez dira fidagarriak %100ean, ispilu horretako irudia ez datorrelako bat errealitatearekin”. Horregatik, zuzendariak dio kanpo-ebaluazioa bai, baina egiteko beste modu bat eskatzen du.



“Egoera ekonomikoaren ondorioz, familia batzuetako seme-alabei euren garapenerako aukerak murrizten ari zaizkie”



# ELKARRIZKETA: ~ IÑAKI ALONSO

---

## SAVE THE CHILDREN-EKO HAURTZAROKO POLITIKEN ARDURADUNA EAE-N

Haurren eskubideen defentsarako erakundeetan lanean ibilbide luzea egin du Iñaki Alonsok (Barakaldo, 1974). Langile klaseko familia batean jaioa, beken bidez, Zuzenbidean lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean eta Nazioarteko Zuzenbidean espezializatzeko masterra egin zuen Uppsalako Unibertsitatean (Suedia). Geroztik, Save The Children-en ez ezik, ACNUR edota UNICEF bezalako erakundeetan ere jardun

du lanean, beti haurren eskubideen arloan. Bereziki, Latinoamerikan ibili da, laguntza humanitarioa ematen, gai horretan aditua baita. Uneotan, Save The Children-eko haurtzaroko politiken eta sentsibilizazioaren arduraduna da EAEn. Bere esanetan, tokatzen zaion familiaren arabera eta ikasteko dituen aukeren arabera, haurren etorkizuna determinatzen ari gara, eta hori horrela izan ez dadin, gizarte gisa, erantzutea dagokigu.



**Euskal Herriko haurren artean gero eta desberdintasun handiagoak daudela salatu izan du Save The Children erakundeak. Zein da errealitatea? Desberdinkeria soziala handitzen ari da?**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, Eusko Jaurlaritzak publikatzen duen Pobrezia eta Desberdintasun Sozialen Inkestaren (PDSI) bidez neurtzen da haurtzaroko pobrezia zer-nolakoa den. Daturik berrienak 2016ko PDSIkoak dira, eta horien arabera, 14 urtez azpiko haurren artean, % 21,2 pobrezian edo pobrezia-arriskuan daude. 2015-2016. urteez geroztik pobreziaren datuek apur bat hobera egin dute, baina krisi aurreko egoerarekin alderatuz, nabarmen ikusten da desberdinkeria soziala handitu egin dela, eta gero eta arrakala handiagoa dagoela gehien dutenen eta gutxien dutenen artean.

**Haurren pobrezia neurtzerakoan, zein irizpide hartzen dira kontuan?**

Pobrezia egoeran daudela esaten da, arrazoi ekonomikoak tarteko, oinarrizko behartzat jotzen direnei aurre egin ezin dieten familiak.

Oinarrizko behar horien artean leudeke bizitokiarekin, elikadurarekin, osasunarekin edota hezkuntzarekin zerikusia dutenak. Pertsonaren duintasunerako gutxienekoak diren gastu horiei aurre egin ezin dieten familiez ari gara.

Batetik, behar ekonomiko handiak dituzten familiak daude, eta, bestetik, berriz, pobrezian erortzeko arriskua dutenak. Horiek guztiek asko kezkatzen gaituzte, ikusten baitugu, egoera ekonomikoaren ondorioz, familia horietako seme-alabei euren garapenerako aukerak murrizten ari zaizkiela.

**Haurren garapena kaltetzeaz hitz egin duzu. Adibiderik jar dezakezu?**

Etxebizitzaren kasuan, adibidez, guk lan egiten dugun familia askok ezin dute hilabeteko alokairuaren kuota ordaindu, eta, beraz, bizitokia beste familia batekin edo birekin partekatu behar izaten dute. Horrek eragina du familia horretako haurrengan ere, espazio txikietan jende asko egon behar izaten dutelako. Bestalde, alokairuaren prezioak direnak direlako, aldiro, etxez alda-

tzen aritu behar izaten dute. Horrek leku, ingurune, jendarte... ezberdin batera joatea esan nahi du eta berriz ere, euren harreman-sarea hutsetik eraikitzen hastea. Horrek guztiak segurtasun, egonkortasun, konfiantza... falta itzela dakarkie haurrei.

Beste adibide bat jartzearren, denbora-librearen eremua aipatu nahiko nuke. Sozializatzeo jokamolde jakin batzuk daude ezarrita. Aisialdia erabat kontsumoari eta espazio zehatz batzuei dago lotuta, eta ondorioz, guk artatzen ditugun familiak denbora-libreko zirkuitu arrunt horretatik kanpo geratzen dira. Kirola egitea bezalako jardueira arrunt batean, esaterako, klubek gero eta kuota altuagoak ezartzen dituzte, eta gure familiek ezin dituzte ordaindu. Baina beste hamaika adibide ere jarri ahalko nituzke. Kontua da aisialdirako ohiko bideak ezin dituztela erabili, eta, etengabe, sozializaziorako esparrua murrizten ari zaiela.

**Komunitate ezberdinak gizarte bakarraren barruan...**

Bai, halaxe da. Esan dugun ho-



rrek guztiak, pixkanaka, sekulako desberdinkeria eragiten du jendearen artean; garapen pertsonalerako errealitate desberdinak sortzen ditu. Eta garapen pertsonalerako mundu desberdin horiek helmuga bakarra daukate: gizarte mota ezberdinak sortzea bakarraren barruan. Haur bat bere garapenerako aukera mugatua goak dituen ingurune batean jaiozten, hazten eta hezten bada, zera gertatuko da: ingurune mota batzuk existituko direla kolektibo jakin batzuentzat, eta beste inguruko mota batzuk beste kolektibo batzuentzat. Kolektibo batzuen eta besteen arteko distantzia geroz eta handiagoa denez, desberdinkeria handitzeaz gain, errealitate paraleloak ere ari dira sortzen.

**“Kohesio soziala” kontzeptua hitzetik hortzera darabilgun honetan, kontrako norabidean ote goaz, bada?**

Kohesio sozialerantz behintzat ez goaz. Save The Children-i erakunde bezala zilegitasuna ematen diona da zuzenean sozialki zaurgarriak diren familiekin lanean aritzea, bai Bilbon eta bai Gasteizen, eta orain baita Barakaldon ere. Familiak ezagutzen ditugu, eurekin hitz egiten dugu, familia horietako haurrekin egoten gara eta euren errealitatea zein den adierazten digute, zein behar dituzten, zein beldur... Gero, datuak daude eta horien gaineko irakurketak, eta txostenak eta araudiak. Baina, guk, gure eguneroko lanean ikusten dugu zenbait familiaren kasuan pobrezia egonkortu egin dela, alegia, haur bat familia pobre batean jaio bada, zailtasunak izango dituela pobrezia horretatik ateratzeko. Garai batean, pobrezia egoeratik ateratzea errazagoa zen, mugikor-tasun handiagoa zegoen. Gaur egun, ordea, badirudi familia edo komunitate batzuk pobrezia egoera horretan enkistatuta daudela, eta pobre izate hori belaunaldi batetik bestera transmititzen ari dela. Haurren eskubideei eta bizitzan aurrera egiteko dituzten aukerei arreta jarri nahi badiegu, errealitate berri hori oso kontuan izan behar dugu, eta neurriak hartu.

**Haurren eskubideak aipatzen dituzu behin eta berriz. Baina, sarri, haurrak eurak ez al dira ahotsik gabe geratzen, eta haurtzaroa ikusgaitz?**

Edozein gizarteri nolakoa den antzematen zaio haurren eskubideak bermatzeko zer egiten duen galdetzen zaionean. Haurren eta haien familien bizitzak errazteko egiten ditugun ekintzekin geure buruaren erretratua egiten dugu. Horrekin argi ikusten da gizarte bat, benetan, haurren eskubideen alde dagoen edo ez.

Hain justu, Save The Children erakundearen egitekoa haurtzaroari ahotsa jartzea eta ikusgarritasuna ematea da. Haurren Eskubideen Konbentzioaz eta hark dioenaz asko hitz egin daiteke, baina benetan erronka nagusia egunerokoan urrats txikien bidez aurrera egitea da, eta haurtzaroko eskubideei eragiten dieten lau arlo nagusietan eragitea: osasunaren, hezkuntzaren, parte-hartzearen eta babesaren arloetan, hain zuzen. Izan ere, finean, kohesio sozialak gure gizarteko haur bakoitzarekin eta familia bakoitzarekin dauka zerikusia.

**Euskal gizartea eta euskal erakundeak nola ari dira erantzuten Euskal Herriko haurren eskubideak bermatzeko orduan?**

Gure gizartearen antzeko ezau-garriak dituzten beste errealitate batzuekin alderatzen bagara, hemen haurtzaroaren nahiz familiaren babeserako politiketan apur bat atzetik gaude. Datuek diote haurtzaroan ez dela inbertitu zitekeen bezainbeste inbertitu.

2017 amaieratik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat erakundetik haurren eskubideen gaiari modu integralean erantzuteko premia azalerazi dugu. Baina ez soilik jaiotza-tasari eragiten dion ikuspegiari begira. Haur gutxi jaiotzen dela egitate bat da, baina gure ustez garrantzitsuena da jaiotzen diren horiek, eta dagoeneko jaiota daudenek eskubide guztiak bermatuta izatea. Gizarte bezala, hori da gure betebeharra.

**Ari dira urrats txikiak ematen...**

Bai. Orain urtebete inguru Familien

“Desberdinkeria soziala handitu egin da eta gero eta arrakala handiagoa dago gehien dutenen eta gutxien dutenen artean”

“Aisialdia erabat kontsumoari eta espazio zehatz batzuei dago lotuta, eta ondorioz, guk artatzen ditugun familiak denboralibreko zirkuitu arrunt horretatik kanpo geratzen dira”

“Gure eguneroko lanean ikusten dugu zenbait familiaren kasuan pobrezia egonkortu egin dela, alegia, haur bat familia pobre batean jaio bada zailtasunak izango dituela pobrezia horretatik ateratzeko”



eta Haurtzaroaren Aldeko Ituna egin zuten Eusko Jaurlaritzak, eta hainbat neurri jarri dira martxan, zenbait erakunde ikuspegi global batetik begiratuta aspaldian aldarrikatzen ari garenari bidea irekiz. Beste neurri zehatz bat haur-eskolak errenta baxuak dituztenentzat doan jartzea izan da. Urteetako lanaren ostean, gutxika, baina badaude aurrerapausoak. Eta hori da bidea: haurren eskubideak praktikara eramatea, izan ere, egunerokoan haurren eskubideak neurri zehatzetan egikaritzen dira.

**Gizartean dagoen desberdinkeria berdintzeko, eskola izan daiteke erremintetako bat. Funtzio konpentsatzailea joka baitezake. Zein irakurketa egiten duzue hezkuntza-**

#### **ren arloko errealitateaz?**

Garai batean eskolak zeukan funtzio konpentsatzailea gaur egun ez dauka. Eta hori ez da Save The Children-ek esaten duen zerbait soilik, hezkuntzako adituak eta eragileak horretan bat datoz.

#### **Zehaztu al dezakezu?**

Ni haur nintzen garaiaz ari naiz, adibidez. Ni Lutxana-Barakaldokoa naiz. Aita siderurgiako langilea nuen, eta ama hasieran idazkaria eta gero etxean geratu zen familiaz arduratzeko. Eta nik unibertsitatean ikasi ahal izan nuen bekarekin, eta lizentziatu bilakatu nintzen. Nirea bezalako hamaika adibidez daude.

Gaur egun, uste dut, antzeko egoera bizi duen Lutxana-Barakaldoko haur batentzat zaildu egin dela uniber-

tsitatera iristea eta nekez bilakatuko dela graduatu. Zentzu horretan, ez dut uste funtzio konpentsatzailea betetzen duenik eskolak.

#### **Okerrera egin dugu, hortaz?**

Bai. Baina hori ez da eskolaren kontua soilik, gizarte osoarena baizik. Pisu handiegia jartzen dugu hezkuntza formalean. Kontu afektibo-sexualak landu behar direla, eskolara jotzen dugu; balioetan hezi behar dela, irakasgai berri bat sortzen dugu; ingurumena zaindu behar dela eta eginkizun hori ere eskolaren gain uzten dugu; eta horrela gauza guztiakin. Baina familia ere hor dago, baita ingurune sozialak, aisialdia edota komunikabideak ere. Beraz, eskolak ez dauka guztia-  
ren errua, erantzule da dagokion neurrian, gu denok erantzule garen bezalaxe. Ni, adibidez, emakumeen futbol talde bateko entrenatzaile naiz, eta badakit astean hiru aldiz bi orduz, sekulako erantzukizuna daukadala 16 neskato horien hezkuntza-prozesuan.

#### **Hezkuntzari berari dagokion ardura- ren zatia hartzeko eskatzen diozue.**

Bai, eta zentzu horretan ez dugu ulertzen gela bateko 28 ikasleetatik 28ak nola izan daitezkeen atzerritar-  
rak, edota Lehen Hezkuntzako 56 ikasleetatik nola izan daitezkeen 55 jatorri atzerritarrekoak edota antzeko maila sozioekonomikoa dutenak. EAEn, ikasleen % 100 ez da atzerritarra; ikasleen % 100ek ez du jatorri atzerritarra; eta ikasleen % 100ek ez ditu 16.000 euro baino baxuagoko diru-sarrerak. EAEn familien % 75 ez dira monomarentalak, baina gerta daiteke gela batean hala izatea. Eta beste aldean, gerta daiteke ikasle guztien familiek 30.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerak izatea, edota gela batean ikasle atzerritar bat bera ere ez egotea. Errealitate horiek denak ulertzea ez da erraza, ez direlako gizarte honen adierazle. Era berean, ez da ulertzekoa eskola-  
kiroleko partida batean, bi talde elkarren aurka aritzea, eta bi taldeak hemengoak izanik, itxura ematea Euskadi munduaren kontra ari dela jokatzeko.

Esan bezala, eskolak ez du izaera konpentsatzailerik. Ondorioz, haur batek bere familiaren arabera eta doan eskolaren arabera, etorkizunera begira aukera hobek eta okerragoak izango ditu. Tokatzen zaion familiaren arabera, eta ikasteko dituen aukeren arabera, haurren etorkizuna determinatzen ari gara.

### **Zentzu horretan, zein neurri hartu ahalko lirateke? Zer proposatzen duzue zuek?**

Hezkuntza politiketan neurriak har daitezke: matrikulazioetan oreka egon dadin saiatu (ikasle berriak eskolatzerakoan edota ingurunearen arabera sailkapenak egi-terakoan...), baliabide gehiago jarri ikastetxeen eskura, irakasleak egonkortu, profesional talde sendoak osatu...

Baina, horrekin soilik ez da nahikoa, alderdi soziala ere hor baitago. Hainbat familiak euren haurra dagokion eskolatik atera eta beste batera eramatea erabakitzen dute beste ikasleen profil sozio-ekonomiko-kulturala eurenarekin bat ez datorrelako. Hori ezin da gertatu.

Horregatik guztiagatik hitz eginen dugu guk segregazio bikoitzaz: segregazio sozioedukatioaz batetik, eta segregazio sozioekonomikoaz bestetik. Dena oso lotuta dago, baina segregazioak profil jakin bat du: ikasle atzerritarrek edo jatorri atzerritarra dutenak daude bestetik; profil sozioekonomiko baxukoak bestetik; eta ijitoen komunitatea azkenik. Eta koktel hori pilotzen da zenbait eskolatan. Eta hori porrota da.

### **Maila sozialean, zer egin daiteke?**

Erreferente sozialak falta ditugu. Ikasle horietako asko euskaldunak dira, Euskal Herrian jaioak, baina zein da arazoa? Kanean oinez doazenean —beltz bat, marokoar bat edo japoniar bat— gizarteko imaginarioarentzat ez direla euskaldunak.

Nik neronek ere autokritika egin beharra daukat, zeren gertatu zait trenean joatea, beltz bat euskaraz zoragarri hizketan entzutea eta pentsatzea: “Baina zeinen ongi hitz egiten duen euskaraz!”, eta akaso

Ondarroara arrantzara lanera etorri den senegaldar baten semea edo alaba da.

Beraz, esan bezala, erreferente sozialak falta dira: autobuseko gidari beltza, postari marokoarra, buruan zapia daraman okina, kiroldegiko atezain arabiarra... egunero harremanetan egon ohi garen jendea da, herritar arrunta, uneoro eurekin elkarreraginean egoteko premia duguna... Baina erreferente sozial horiek falta zaizkigu, eta horiek gabe, porrot egingo dugu gizartean. Izan ere, erreferente horiek baleude interakzioa egongo litzateke, eta ondorioz, ulermena.

**Aipatu duzu datuek erakusten dutela jatorrizko familiak eta ikasi duen eskolak determinatu egiten duela haur horren etorkizuna. Baina, badaude hainbat adibide determinismo sozial hori zalantzan jartzen dutenak, erakusten baitute, ikastetxeko haur guztiak eremu sozioekonomiko latzetik etorri arren, oso emaitza onak lortzen dituztela eta bizitzan aurrera egiten dutela; kasu askotan, goi mailako ikasketak eginez.**

Bai, eta esperientzia mota horiek erakusten dute haur hauek ere, denek bezala, sekulako potentziala dutela. Gaitasun izugarria dute, baina kontua da askotan gaitasun hori ikusezin bihurtzen dela. Badirudi ekonomikoki zaurgarriak diren familietako haurrek ez daukatela ikasteko kapazitatetik.

Nire ustez, haur horiek aurrera egin dezaten bi faktore dira garrantzitsuak: batetik, norbaitek ume horiengan sinestea; bestetik, berriz, euren potentzial osoa gara dezaten baliabideak jartzea eta erremintak eskaintzea. Zer gertatzen da? Zenbait kasutan, eskolan ezarrita dagoen eredu pedagogikoak edo ildo curricularrak ez diela bi faktore horiei erantzuten.

Haurren eskubideen ikuspegitik begiratua, eskolaren egitekoa da, datorren ingurune sozioekonomikotik etorrira ere, haur bakoitzak bere potentzial osoa ahalik eta gehien garatzea lortzea eta horretarako behar diren bitartekoak jartzea.

“Haur gutxi jaiotzen dela egitate bat da, baina guretzat inportanteena da jaiotzen diren horiek eta dagoeneko jaiota daudenen eskubide guztiak bermatuta izatea”

“Garai batean eskolak zeukan funtzio konpentsatzailea gaur egun ez dauka. Eta hori ez da Save The Children-ek esaten duen zerbait soilik, hezkuntzako adituak eta eragileak horretan bat datoz”

“Ez da ulertzekoa eskola-kiroleko partida batean, bi talde elkarren aurka aritzea, eta bi taldeak hemengoak izanik, itxura ematea Euskadi munduaren kontra ari dela jokatzeko”



# ESPERIENTZIAK

KONTXA NATURAGUNEA

## Sastrakadia naturagune, jolastoki, ikasgela, aisia-leku... bilakatu dute Karrantzako Kontxa Eskolan

Sasiak garbituz, bazterrak txukunduz, lurra landuz eta ingurua atonduz, sastrakaz betetako eskola atzeko eremua naturagune bihurtu dute Karrantzako Kontxa Eskolan. Irakasleek eta ikasleek elkarrekin egindako lana izan da; behetik gora eraikitako proiektua. Familien eta instituzioen laguntza izan dute, baina, beste ezeren gainetik, eskolako kideen ilusioa eta motibazioa izan da egitasmoa aurrera eramateko motorra. Hasieran *ingurumen proiektu* izendatu zutena, ikasleen jolastoki bilakatu da, aisialdirako desiratutako espazio, lanerako eremu, eskolak emateko gune ezin egokiago; jolastoki, ikasgela eta aisia-leku.



Rober Areizaga eta Irantzu Duce.

Lehen begiratuan, eskola guztien antzekoa dirudi Karrantzako Kontxa Eskolak. Autoa hesiaren kontran aparkatu, eta hormigoizko patio zabala zeharkatzea da ate nagusira iristeko bidea. Futboleko jokalekuak, saskibaloiko kantxak, ateeak eta saskiek egiten diete ongietorria ikasleei, irakasleei, beste langileei, gurasoei eta enparauei. Hasierako begi-kolpean, inork gutxik irudika lezake eskolak atzean naturagune aberats eta erakar-garri bat izan dezakeenik, jolaserako, gozamenerako eta plazererako ez ezik, ikerketarako, esperimentaziorako eta eskolak emateko ere hamaika aukera eskaintzen dituena.

2016ko Gabonetan hasi zuten

abentura, Rober Areizaga zuzendariaren beraren ekimenez. Pixkanaka, denbora libre zuenean, eskolaren atzealdeko eremua txukuntzen hasi zen; sasiak kentzeko makina hartu, baso itxian sartu, eta sasiak garbitzen eta sastrakak kentzen. “Gure eskola ingurune natural batean dago, baina zementuzkoa zen erabat. Desoreka handia ikusten genuen, eta zer edo zer egitea erabaki genuen”, argitu du. Horrelako dimentsioa duen egitasmo batean sartzeko ausarta izan behar dela dio, baina, beste ezeren gainetik, denbora eduki behar dela, lan izugarria eskatu baitie hutsetik hasita horrelako ingurune bat prestatzeak. “Eguneroko eskola aspergarri samarra gerta daiteke, gauza berriak egin

ezean eta erronka berriei heldu ezean. Ilusioa eduki behar da ametsak aurrera eramateko”.

Udalaren jabetzakoa zen Kontxa Eskolaren atzeko eremua, baina erabat utzita zegoen, eta berreskuratu egin du eskolako komunitateak. Udalak laguntza eman die, adibidez, kamioia eskainiz hainbat material garraiatzeko. Eta guraso-elkarteak ere diruz lagundu ditu. Bestalde, familiak ere inplikatu dira egitasmoan. Horregatik diote proiektua eskola-komunitate osoarena dela. Gainera, bide bat egin duten arren, proiektuak aurrera jarraitzen du, etengabe zaindu beharreko espazioa baita Kontxa Naturagunea, une oro erabiltzen, aldatzen eta egiten dihardutena. Batetik, aisialdirako erabiltzen dute ikasleek —goizeko atsedenean, bazkal osteko tartean nahiz hainbat arratsaldetan—; bestetik, arloak lantzeko eta eskolak emateko ere erabil daiteke. Hori irakasle bakoitzaren esku dago, oraingoz.

### **Ikasleek eurek eraiki dute, eta eurena sentitzen dute**

Areizagaren gidaritzapean, hainbat ikasle aritzen dira Kontxa Naturaguneko lanetan. “Talde berdea” izenpean lanean diharduten ikasleek hainbat jarduera egiten dituzte: garbitu, belarra bildu, hostoak jaso, txokoak apaindu, lurra kendu,

orgatilan eraman... “Ikasleak beti prest daude parte hartzeko. Askotan, lana emateko eskatzen digute. Gauza praktikoak, baina, aldi berean, dibertigarriak egin nahi dituzte”, azaldu du proiektuaren sustatzaileetako batek, Irantzu Duce ikasketaburuak. “Nik lana nahi dut, zer egin dezaket?”, galdetzen diete irakasleei. Izan ere, ikasleek atsegin dute Kontxa Naturagunea zaintzeko eginkizunetan parte hartzea, hastapenetik inplikatu baitira egitasmoaren eraikuntzan. Horrexegatik, eurena sentitzen dute proiektua, eta zaindu egin nahi dute. Finean, Kontxa ez da ingurumen-proiektu bat soilik, ezta jolastoki edota baratze bat soilik ere. Askoz gehiago da: heziketarako, harremanetarako, bizitzarako... espazio bat da.

Sekulako aldea nabaritu dute Karantzako Kontxa Eskolan, ingurumen-proiektua deiturikoa martxan jarri dutenetik. Liskarrak nabarmen gutxitu dira, eta askoz ere hobea da elkarbizitza. Irakasleen esanetan, horixe da akaso aldaketarik nabarmenena. “Ez dago liskarrik. Egon litezke 80 ume elkarren ondoan, hasi 2 urtekoetatik eta 12 urte artekoetara bitartean, eta denak batera jolasean bakean ibili”, dio Ducek. Hori oso lotuta dago patioaren erabilerarekin. Izan ere, aurrealdeko asfaltozko jolastokian, orain, ez da ia inor ibiltzen,

“bizpahiru futbolzale” soilik. Eta, justu beste patio horretan dagoen futbol-zelaian, kontrakoa gertatzen da: “12 ikasle soilik egon litezke, eta sekulako istiluak eduki elkarrekin”.

Gatazkak gutxitzeaz gainera, irakasleak ohartu dira ikasleak elkarrekin ibiltzen direla orain nahasian, eta ez lehen bezala gelen, adinaren edo sexuaren arabera banatuta. Txikiak nagusiekin ibiltzen dira, anai-arrebak elkarrekin, zaletasunen arabera nahastuta... “Hamaika jolas motatako aukera dute, aukera ugari eta erakargarriak. Oso pozik etortzen dira, eta patioan egon nahi dute beti. Hemen denak elkarrekin ikus ditzakezue, batzuk pasieran, beste batzuk lasai eserita irakurtzen, edo erremintak ikusten, harearekin tunelak egiten, enborretan jolasean, loreei begira, dinosauroekin berriketan... Eta hori oso pozgarria da guretzat”, azaldu du zuzendariak. Izan ere, Kontxa Naturaguneko horrenbesterainoko aukera zabala eskaintzen duenez, bakoitzak aukeratu dezake zer egin: batek mugimendua bila dezake, besteak lasai egotea, hirugarrenak lagunekin jolastea edo bakarrik irakurtzea, etab. Eta horrek berak ere gatazkak gutxitu egiten ditu.

Areizagak uste du Kontxa Naturaguneko eskola beste modu batera bizitzeko aukera ematen diela. “Batzuetan, ni hemen geratzen naiz





## ESPERIENTZIAK: KONTXA NATURAGUNEA

arratsaldetan, eta akaso ikasleek eskolaz kanpoko ekintzak dituzte, eta, denbora badute, niregana etortzen dira. Batzuetan, gurasoak ere ekartzen dituzte tokia erakutsi nahi dietelako. Horrek erakusten du ikasleentzat zer nolako garrantzia duen leku honek, eta oso pozgarri da hori”.

### Hamaika espazio eta material

Era askotako txoko, espazio, material eta natura-baliabideak ditu Kontxa Naturagunea. Hona hemen horietako batzuen deskribapena:

- **Sarrerako erakusketa:** Kontxa Naturagunerako bidean, ezkerretako paretan, animalien gaineko informazioa eta haien argazkien erakusketa bat ageri da, ornodunetan eta orno-gabeetan artean sailkatuta. Animalia bakoitzaren izen zientifikoa ere adierazi dute azpian, eta baita bakoitzaren ezaugarri nagusiak ere.

- **Parke-gela:** Kontxa Naturaguneko eremuan barrura egin, eta, eskuinetara, parke-gela dago. 25 enborrekin osatutako espazioa da. Hara joan ohi dira ikasleak irakurtzera, kontuak esatera, lasai egotera... Hori, denbora librean; eskola orduetan, berriz, edozein eskola han emateko aukera eskaintzen du. Gainera, eguraldi ona denean, arbola batetik bestera zintzilik, bi hamaka ere jarri ohi dituzte.

- **Jolas librerako txokoa txikien-**

**tzat:** koloretako harriekin, makilekin, belarrarekin, ontziekin... osatutako espazio bat da, objektuak biltzeko eta sailkatzeko, eraikuntzak egiteko, gauriorako... balio dezakeena; hurrei euren kasa jolasean jarduteko aukera uzten diena, baina baita gidatutako proiektuak egiteko ere.

- **Baratze txikiak edo lorontzi handiak:** parke-gelaren eta jolas librerako txokoaren alboan, lorontziak prestatzen ari dira, lur onez beteta, gero ontzi horietan hainbat barazki ereiteko.

- **Irudimenaren espazioa:** belar artifizialeko alfonbra bat, 10 m<sup>2</sup> ingurukoa, jarria dute Kontxa Naturaguneko aldapa batean. Han, era askotako harriak dituzte, baita zenbait egur pusketa ere, umeen irudimenari atea irekitzen diotenak, hamaika figura ikusten baitituzte haiek harriei begira: bihotzak, arrainak, hanburgerrak, munstroen aurpegiak, itsasontziak... Hurrek, gainera, txoko hori osatzen parte hartzen dute, asteburuan mendian topatutako harriren bat ekarriz, edo egurren bat, edo hezur pusketaren bat besteen aldamenean jarritz.

- **Bi harea-toki:** hurrek izugarri gogoko dute eremu hau. Bi harea-toki dituzte: *Lizarraren harea-tokia* deiturikoa bata, eta *Pagoaren harea-tokia* deiturikoa bestea. Lehenak 25 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 7 m<sup>3</sup> hondar sartzen

da han; bigarrenak, berriz, 30 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 12 m<sup>3</sup> hondar hartzen ditu. Adin guztietako hurrek ibiltzen dira horietan, 3 urtetik hasi eta 12 urtera artekoak: tunelak egiten dituzte, hondartzako tramankuluekin ibiltzen dira, kamioi eta hondeamakinetarako bideak egiten dituzte, oinutsik jarri eta hondarretan saltoka ibiltzen dira, hamaika irudi eraikitzen dituzte... Leku aparta da jolaserako eta gozamenarako.

- **Agertokia:** 20 m<sup>2</sup>-ko azalera duen eremua dute agertoki moduan prestatua, antzerkia, poesia-errezitaldiak, ipuin-kontaketak, dantzak... egiteko ezin aproposagoa. Gainera, harmailak ere badituzte ikusleentzat, aldapan jarrita.

- **Informazio-panelak:** landareen, fruta-arbolen, animalien, loreen... eta Kontxa Naturaguneko espazio eta material ia guztien inguruan informazioa emateko, panelak dituzte, kartoian idatzita eta plastikoz forratuta, eguraldiak honda ez ditzan. Edonork eskuetan hartu, irakurri, erabili eta atzera ere bere lekuan uzteko aukera ematen dute.

- **Fruta-arbolak:** zenbait fruta-arbola landatzeaz gainera –hala nola sagarrondoak, gaztainondoak, intxaurrondoak...–, gaur egun Kontxa Naturagunea den eremuan lehendik zeuden zenbait zuhaitz ere mantendu dituzte:





lizarra, artea, haritza, astigarra...

- **Egurrezko hamakak:** Hamakontxa izenez ezagutzen duten espazioa da. Paletekin egindako egurrezko sei hamaka zabal dituzte. Haurrek atsedena har dezakete gune horretan, haмаiketakoa edo askaria jan, irakurri, kontuak esan... edota baita eguzkitan siestatxoa egin ere.

- **Gezurretako animaliak:** erretxinarekin, plastikoarekin nahiz zeramikarekin egindako hamaika animalia dituzte, Kontxa Naturaguneko hamaika txokotan banatuta. Ikusgarriak dira, tamaina eta kolore guztietakoak, eta haurrek oso gustuko dituzte, beren egiantzekotasunarengatik; izan ere, esan daiteke ia ume guztiak direla animalien zaleak.

- **Kontxasauroa:** dinosauroen bildumarako txokoa da. Hamaika dinosauro dituzte, asko ikasleek eurek ekarriak; beste batzuk, berriz, erosiak. Dinosauro batzuek leku finkoa dute. Beste batzuk, berriz, batetik bestera mugitzen joaten dira; horrek aukera ugari ematen dizkie haurrei, jolaserako, adibidez. Ikasleen artean sekulako arrakasta duen eremua da.

- **Habiak:** habiak egin dituzte hainbat hegazti motarentzat, eta zuhaitzetan zintzilik jarri dituzte.

- **Abenturazko ibilbidea:** pasabide ezkutu bat da, aldapekin, lokatza-rekin, harriekin, sastraka artean... Ikasleek oso gustukoa dute, txikienek bereziki, haientzat sekulakoa baita ibilbide osoan egitea lortzea, beldurrak alde batera utzita.

- **Buru-hezurren txokoa:** animalien buru-hezurak ez ezik, bestelako hezur kuriosoak ere biltzen dira txoko honetan. Gehienak mendian bilatutakoak dira, eta ikasleek eta haien familiek ere parte hartzen dute espazio hau etengabe osatzen. Hasiera batean kontrakoa irudi lezakeen arren, ikasleen tokirik kuttunenetako bat da.

- **Aire zabaleko gela:** egurrezko lau mahai biribil dituzte, eta, bakoitzaren bueltan, enborrak, umeak eseri ahal izateko. Leku aproposa da taldean eta aire librean lanean edo jolasean aritzeko.

- **Jakintsuen esanak:** hemengo nahiz nazioarteko jende ospetsuen esanek osatzen dute txoko hau. Esaldi edo testu iradokitzaileak dira, adiski-



dantzarekin, esfortzuekin, lankidetzarekin... loturikoak. Beste batzuek, berriz, elkarrizketaren garrantzia, ingurumenaren zaintza, euskararen erabilera... bultzatzen dituzte. Baina, guztiak ere hausnarketarako eta go-goeta individual nahiz partekaturako deia egiten dute.

- **Enborrez enbor:** belarrezko pasabide luze bat da, eta, ibilbidean zehar, egur zatiak daude jarrita, hainbat tamaina eta lodieratakoak. Ikasleei zorua ukitu gabe batetik bestera igarotzeko deia egiten zaie. Koordinazio psikomotorra, gorputz-oreka, erronkak gainditzea, beldurrak uxatzea eta horrelako abileziak lantzeko balio du.

- **Fruten eta barazkien erakusketak:** bi bilduma ikus daitezke trenbideko trabes batzuetara erretxinarekin itsatsita, ia tamaina eta kolore errealekin: frutena eta barazkiena.

- **Sendabelarrak eta usain-belarrak:** erromeroak, salbiak, izpikuak, ezkaikak, basamarrubixtoak, tipulina, txikori belarra, melisa, santolina, berbena limoiusaina... daude txoko honetan, bakoitza bere panelarekin eta dagokion informazioarekin. Uda aurrean, perrexila, estebia, martorria,

apioa, oreganoa, mihilua, etab. ere izaten dute. A zer gozamina usaime-narentzat!

- **Biltegia:** Kontxa Naturagunean lanean jarduteko eta ingurua lantzeko beharrezko erremintak eta materialak gordetzen dituzte biltegian. Ikasleek neguan janzen dituzten botak eta katiuskak ere hantxe edukitzen dituzte.

- **Lanabesen erakusketa:** Enborrez Enbor deituriko joko-eremuaren aldamenean, eskola-eraijinaren atzeko paretan, lanabesen erakusketa dago. Horiek ere, bakoitza bere informazioarekin.

- **Hazitegia:** ezkurak, urrak eta bestelako haziak lurpean sartu, eta hazitegi naturala egin dute.

- **Baratzea:** Kontxa Naturagunearen ertz batean, baratzea eraikitzeko lanetan ari dira.

#### Bisitei irekita

Kontxa Eskolako kideak prest daude beste ikastetxeei proiektua eza-gutarazteko. Kontxa Naturagunea bisitatu nahi izanez gero, eskolarekin harremanetan jarri behar da 946107147 telefonora deituta, edo 014232aa@hezkontza.com helbidera idatzita.

# PEDAGOGO SORTZAILEAK

## Ramon Flecha

*Pedagogo sortzaileak* izeneko monografikoa eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta ikasturte honetan emango du argitara edizio berria. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, pedagogiako zein psikologiako adituen eta arituen eskurik. Ramon Flecharen inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan zortzigarrena.

**R**amón Flecha Bilbon jaio zen, 1952. urtean. Gaztetatik hartu zituen hainbat konpromiso soziopolitiko. Deustuko Unibertsitatean ekonomia-ikasketak egiten ari zela, Frankismoaren aurka aritu zen, beste zenbait ikaslerekin batera, eta, horregatik, ikasle horiek guztiak bota egin zituzten unibertsitateetik. Talde horretan zegoen Iñaki Santacruz, eta hantxe zegoen Jesús Gómez ere, umetatik Flecharen lagun mina izan zena. Elkarrekin Bartzelonara joatea erabaki zuten (Giner i Gota, 2013).  
Hezkuntza-ikasketak egin zituen



**Harkaitz Zubiri**

EHUko irakaslea

Flechak Bartzelonako Unibertsitatean. Hiri hartako periferiako auzo txiro batean, La Verneda - Sant Martí helduentzako eskola sortu zuen 1978an, tokiko elkarteekin lankidetzan. 1980an, hantxe antolatu zituen lehen aldiz solasaldi literario dialogikoak, eta, solasaldi horietan, prestakuntza akademikorik gabeko ikasleak Homero, Cervantes, Kafka eta horrelako idazleen obra handiak irakurtzen hasi ziren. Eredu dialogikoa izan zen gakoa. Egoera sozialak alda zitezkeela erakutsi nahi zuen Flechak, berdintasuneranzko pausoak eman zitezkeela praktikan, eta, horretarako, ikerketa zientifikoan aurkitu zituzten ebidentziak kontuan hartzea komeni zela, betiere, Robert K. Merton soziologoak esaten zuen eran: erraldoien sorbalda gainean (Giner i Gota, 2013).

Unibertsitatean lanean hasi eta urte gutxira, 1991n, Flechak CREA (Community of Research on Excellence for All) ikerketa-taldea sortu zuen. Desberdinkeriak gainditzera bideratutako praktikak eta teoriak sortzea zuten helburu, eta, harrezkero, punta-puntako ikerketan aritu dira mundu mailan. CREArentzat, funtsezko erreferentzia izan da nazioarteko ikerketa zientifikoa hastapenetatik. Flechak ildo horri jarraituz ikaskuntza-komunitateen ereduak sortu zuenean: ondo funtzionatzuten zuten hezkuntza-ereduak hartu zituen oinarri (Yale Unibertsitateko



*Eskola Garapenerako Programa*, Stanford Unibertsitateko Eskola azeleratuak, John Hopkins Unibertsitateko *Denentzako Arrakastarako Programa*). Ikaskuntza-komunitateen eredia Portugaleteko Ruperto Medina ikastetxean jarri zen martxan lehen aldiz, 1995ean, eta Europako eta Amerikako ehunka eskolara zabaldu zen handik. Aski frogatuta gelditu da ikaskuntza-komunitateen eredia eraginkorra dela hezkuntza-aren arloko desberdinkeria sozialak gainditzeko eta ikasle guztiei kalitate oneko hezkuntza bermatzeko. Izan ere, CREAren helburua ez da izan ikertzea soilik. Hobeto funtzionatzen duten eredu berriak sortzea eta haiek errealitate bihurtzea da CREAren xede behinena (Giner i Gota, 2013).

INCLUD-ED ikerketa-proiektua (2006-2011) mugari izan zen ikaskuntza-komunitateen bilakaeran. Ramón Flechak zuzendu zuen proiektua. Europan gizarte-zientzietan finantziazio publikoarekin inoiz egin den ikerketa-proiektu garrantzitsuena da. Europako Batzordearen Seigarren Egiturazko Programaren barnean garatu zen. Hezkuntzan oinarrituta, desberdinkeria sozialak nola gaindi zitezkeen ikertzea zuen helburu.

Honoris causa doktore titulua eman zion Timisoara Mendebaldeko unibertsitateak Flechari 2007an.

Gaur egun, IMPACT-EV ikerketa-proiektuaren zuzendaria da Ramón Flecha. Europako Batzordearen Zazpigarren Egiturazko Programaren barnean garatzen ari da egitasmo hori.

### **Eskolek ahalmen handia dute, baina ez dute denek hori esaten**

Aspaldi itxi nahi izan zuten batzuek eztabaida. Eskolek ez zutela eraginik zioten. Alferrik zirela desberdinkeriak gainditzeko egiten zituzten ahaleginak. Ospetsuak dira Coleman txostena (1966), Bane eta Jencksen *Eskola eta aukera-berdintasuna* (1972), eta Jencksen *Desberdinkeria* (1973). Biziki lagundu zuten, zoritxarrez, eskoletan egiten zen inbertsio publikoa murrizteko ahaleginean (Flecha & Buslon, 2016). Gainera, eskolek zapalkuntza soziala indartzen zutela ere zioten erreproduktzioaren teoriek, eta, era berean, soilik botere-

harremanen dimentsio dominatzaile aztertuz, eskolen ezintasunaren diskurtsoa hauspotu zuten hainbat teorialari postmodernok (Flecha, 2011).

Hori guztia gutxi balitz bezala, Espainiako hezkuntza-legediaren berrikuntzak, lagundu baino gehiago, kalte egin zuen, zeren desberdinkeria helburu bihurtu zuen 1990ean onartu zen LOGSE legeak. Ikasleek maila akademiko desberdinetako lorpenak izango zituzten. Esan daiteke betidanik gertatu dela hori, baina LOGSE legeak bazekarren berrikuntza bat: desberdinkeria ez zuen hartzen hezkuntza-sistemaren akats edo arazotzat. Aitzitik, aniztasuna errespetatzearen izenean, ontzat eman zuen desberdinkeria (Giner i Gota, 2013). Horregatik hobesten da ikasle bakoitza bere erritmora joatea. Horregatik onartzen da aurretiazko ezagutza ezinbestekoa dela zerbait ikasi ahal izateko: aurretiazko ezagutza jakin bat ez daukanak ez badu ikasten, ez omen dago kezkatu beharrik, naturala omen da. Horregatik, uste dute testuinguru hurbilari lotutakoa ikas daitekeela soilik: *nork bere testuinguruaren arabera* esatea ez dago urrun *nork bere familiarren posizio sozioekonomiko eta kultura-*

*laren arabera* esatetik (Egan, 2005).

Horrez gain, LOGSErekin diluitu egiten da hezkuntza-sistemak erakunde global bezala zeukan ardura. Hezkuntza, orain, eskola bakoitzaren ardura izango da, eta, horren ondorioz, arrakasta eta porrota ere eskola bakoitzaren ardura izango dira. Halaber, ikaslearen porrota ikasleari leporatuko zaio, ez hezkuntza-ereduari (Giner i Gota, 2013).

Ramón Flecha ez dator bat ikuspegi horiekin, desberdinkeria areagotu eta elkarbitza okertu egiten dutelako, eta, gainera, ikerketa zientifikoak eskaintzen dituen eredu eraginkorrenak ez dituztelako kontuan hartzen. Halaber, Flechak dio, beste hainbatek bezala (Aubert et al., 2008), Ausubel (1963) hartu zuela oinarri LOGSEk, nahiz eta egile horren ekarpenek ez duten bat egiten nazioarteko eremu zientifikoan aurkitu diren ebidentzia sendoenekin; izan ere, ebidentziek argi erakutsi dute posible dela lorpen akademikoak eta bizikidetzaren osasuntsua bermatzea ikasle guztiei.

Ikaskuntza dialogikoa proposatzen du Flechak. Freire (1970), Vygotsky (1978; 1979), Habermas (1987) eta beste hainbaten ekarpenetan oinarritzen da: mota guztietako ikasleei hezkuntza ona eskaintzea posible



Ramón Flecha.



“Mota guztietako ikasleei hezkuntza ona eskaintzea posible dela aldarrikatzen du Flechak. Interakzioak ugaritzea eta aberastea da ikaskuntza-prozesua hobetzeko bidea. Helburu hori eraginkortasunez bete dadin, ezinbestekoa da komunitatearen parte-hartzea”

dela aldarrikatzen du Flechak, eta eredu eraginkor bat ere proposatzen du hori egiteko.

Interakzioak ugaritzea eta aberastea da ikaskuntza-prozesua hobetzeko bidea. Helburu hori eraginkortasunez bete dadin, ezinbestekoa da, irakasleek eta ikasleek parte hartzeaz gain, beste batzuek ere parte hartzea (senideek, auzokideek, ikasle helduagoek, bestelako boluntarioek...). Funtsezkoak dira elkartasuna eta lankidetzak. Flechak (1997) proposatzen duen ikaskuntza dialogikoaren helburua ez da egoerara egokitzea; ez da une jakin batean dauden mugak bere horretan onartzea. Ikaskuntza dialogikoa eraldatzailea da. Freirek idatzi zuenez, hezkuntzak ez du mundua aldatzen, baina mundua aldatuko duen jendea eraldatzen du. Baldintza egokienetan, gizabanako guztiok daukagu funtsezkoa den guztia ikasteko gaitasuna. Denok gara ditzakegu oinarrikoak diren trebezia instrumentala guztiak. Ez dira aniztasuna eta desberdinkeria nahastu behar. Segregazioak kalte egiten du desberdinkeria ekoizten duelako. Aniztasuna, berriz, aberastasuna da, baldin eta berdintasunean eta elkarrekiko interakzioan garatzen bada;

baina, horretarako, ezinbestekoa da ikaskuntza gauzatuko den testuingurua eraldatzea. Irakaslearen lana ez da ezagutza transmititzea, ikaskuntza ahalbidetuko duten baldintzak sortzea baizik.

Ikasleak beren mailaren arabera bereiztea ez da eraginkorra, Flechak (2015) dioenez. Hezkuntzan horren ohikoak diren joera horiek pobretu egiten dute ikaskuntza-prozesua; desberdinkeria areagotzen dute; autoestimua okertzen dute, eta, gainera, kohesio soziala ahultzen da.

Emaitza onak lortzea da ikaskuntza dialogikoaren helburu behinena. Xedea ez da prozesu egokia sustatzea soilik. Ezinbestekoak dira lorpenak. Bestela, ez dira bermatzen ikasleek ikaskuntza eta garapena.

#### Harridura sortzen duten eskolak

Ramón Flechak zuzendu zuen INCLUD-ED ikerketa-proiektuak sei jarduera eraginkor identifikatu zituen, zeinetan ikaskuntza dialogikoaren printzipioak gauzatzen diren: talde elkarreragileak, solasaldi literario-dialogikoak, irakasleen trebakuntza dialogikoa, gatazken prebentziorako eta konponbiderako eredu dialogikoa, komunitatearen parte-hartzea hezkuntzan, eta senideen trebakuntza.

Ikerketak argi erakutsi du hobetu egiten dela eskolaren martxa, jarduera horiek behar bezala egiten direnean; eta, gainera, gakoa ez da soilik egitea edo ez egitea; zenbat egiten diren ere kontuan hartu behar da.

Azken urteetan *Cambridge Journal of Education* aldizkarian irakurrienetakoa den artikulu batean, Albaceteko Lehen Hezkuntzako La Paz eskolaren aldaketa-prozesua azaldu dute Ramón Flechak eta Marta Solerrek (2013), gaur egungo CREAko zuzendariak. INCLUD-ED proiektuan identifikatu ziren jarduera arrakastatsuen eragina ikusteko balio du kasu horrek.

La Paz eskola dagoen auzoan, gogorak dira bizilagunen baldintza sozioekonomikoak; auzo horretako biztanleen %90 ijitoa da, eta familia gehienek alfabetatze-maila apala da. Ikaskuntza-komunitate bihurtu aurretik eta jarduera arrakastatsua aplikatu aurretik, oso txarra zen auzoko

eskola horren egoera: ikasleek oso hizkuntza eta alfabetatze-maila txikiak zituzten; matematikaz ere oso gutxi zekiten; ikasle askok uzten zituzten ikasketak; absentismoa ikaragarria zen; gatazka ugari zeuden ikasgelan nahiz familien eta irakasleen artean, eta, giro horretan, familia askok atera egin zituzten seme-alabak eskolatik.

Eraldaketa oso sakona izan zen. Erabat aldatu zituzten ikasgelako dinamikak. Interakzio gehiago eta aberatsagoak izatea zuten helburu, eta, horretarako, funtsezkoa izan zen, batetik, gela beste era batera antolatzeko (talde elkarreragileen bitartez eta solasaldi literario dialogikoen bitartez, nagusiki); eta, bestetik, oso garrantzitsua izan zen familiek eskolan hartu zuten rol berria. Erabakietan eta ikasgelako egunerokotasunean parte hartzen hasi ziren familiak, eta, horri esker, batetik, proiektu orokorra aberastu ahal izan zuten familien ekarpenek, eta, bestetik, familiek ikasgelan parte hartzen zutenek, ikasleek izaten zituzten interakzioak askoz oparoago bihurtu ziren, ugaritu egin baitziren ikasleek arteko interakzioak; izan ere, senideek horixe sustatzen zuten. Halaber, ikasleek inoiz ez bezalako aukerak zituzten senitartekoekin interakzioak izateko. Ikasleek motibazio nabarmen handitu zuten. Senitartekoek ez zuten aurretiazko ezagutza berezirik behar; alfabetatuak izatea ere ez zen beharrezkoa.

Horren guztiaren emaitzak nabarmenak izan ziren hurrengo ikasturterako: test estandarretan ere garbi islatzen zen asko hobetu zutela hizkuntza-trebezietan (irakurtzen, idazten, hitz egiten...), trebezia artistiko eta sozialetan, autonomian, alderdi emozionaletan, eta matematikan. Hurrengo ikasturteetan, garapen hori areagotu egin zen. Gainera, ikasleek ere argi ikusten zuten hobetzen ari zirela. Absentismoa ikaragarri txikitu zen, harik eta 2008-2009 ikasturtean oso noizbehinkakoa bihurtu zen arte. Era berean, urtetik urtera, gero eta ikasle gehiago matrikulatzen ziren ikastetxean.

Ez da kasu bakarra. Beste ikaskuntza-komunitate batek, Hospitaleteko Joaquim Ruyra eskolak, jaso zuen 2017an Kataluniako eskola onenaren

saria: etorkin txiroak gehiengo diren auzo batean daude, baina, urtero, Kataluniako batez bestekoen gaitetik dauden emaitza akademikoak lortzen dituzte, eta, zenbait arlotan, baita Kataluniako eliteko eskolen gaitetik daudenak ere. Gainera, lankidetzeta eta elkartasun-giroa dira nagusi ikasleen artean.

Testuinguru pobretuetan ez ezik, bestelako inguruetan ere ondo funtzionatzen dute INCLUD-ED proiektuak identifikatu zituen jarduerak arrakastatsuek. Esate baterako, Cambridge inguruko hainbat eskola ikertu zituztenean, emaitzek erakutsi zuten eraginkorrak zirela motibazioa handitzeko, irakurmena hobetzeko, arrazoitzeko gaitasuna sakontzeko eta lorpen akademikoetan gertatu ohi den desberdinkeria murrizteko (Hargreaves & García-Carrión, 2016).

Gaur egun, ia 30 ikaskuntza-komunitate daude Euskal Herrian, eta INCLUD-ED ikerketa-proiektuan identifikatu ziren jarduerak arrakastatsuek beste hainbatek ere aplikatzen dituzte. Europako beste hainbat herrialdetara ere zabaldu da (Erresuma Batua, Italia...), baita Amerikako zenbait herrialdetara ere, Brasildik hasita. Gaur egun, 1.000 eskolak baino gehiagok erabiltzen dituzte jarduerak arrakastatsuek, munduko 13 herrialdetan.



### Genero-indarkeria gainditzeko ekimenak

Jesús Gómez lagun minarekin batera, Flechak hainbat ekarpen egin izan ditu genero-indarkeriari aurrea hartzeko: genero-indarkeriaren aurkako eredu dialogikoa, maskulinitate alternatiboak sustatzeko teoria berri bat, unibertsitatean gertatzen diren genero-indarkeria kasuen ikerketa... Funtsean, genero-indarkeriaren aurkako neurri eraginkorrak hartzea dute helburu, berdintasuna eta elkartasuna oinarri hartuta: ahalik eta mailarik kolektiboenean biktimak babestea, biktimen berbiktimizazioa eragozteko, eta erasotzaileen legitimo-

tasuna eta erakargarritasuna desagerarazten ahalegintzea, besteak beste.

Unibertsitatean gertatzen diren genero-indarkeria kasuak ikertzen eta salatzen hasi zirenetik, Flechak ez ezik, CREAko kideek ere hainbat difamazio-kanpaina sufritu behar izan dituzte, oso oldarkorrak, batik bat 2004. eta 2015. urteen inguruan, Bartzelonako Unibertsitatean genero-indarkeriaren aurkako salaketak plazaratzen ari ziren bi garai haietan, hain zuzen. Baina nazioarteko nahiz hemengo elkartasuna ere jaso zuten, eta Flechak eta CREAk ez zioten lan egiteari utzi (Giner i Gota, 2013).

### Bibliografia

- Ausubel, D. (1963). *The psychology of meaningful verbal learning*. New York: Grune & Stratton.
- Coleman, J.; Campbell, E.; Hobson, C.; McPartland, F.; Mood, A.; Weinfeld, F.; et al. (1966). *Equality of educational opportunity*. Washington, DC: U.S. Government Printing Office.
- Egan, K. (2005). Students' Development in Theory and Practice: The Doubtful Role of Research. *Harvard Educational Review*, 75(1), 25-41. DOI: [10.17763/haer.75.1.q8177028482350h4](https://doi.org/10.17763/haer.75.1.q8177028482350h4)
- Flecha, R. (1997). *Compartiendo palabras. El aprendizaje de las personas adultas a través del diálogo*. Madrid: Paidós.
- Flecha, R. (2011). The dialogic sociology of education. *International Studies in Sociology of Education*, 21(1), 7-20. DOI: [10.1080/09620214.2011.543849](https://doi.org/10.1080/09620214.2011.543849)
- Flecha, R. & Soler, M. (2013). Turning difficulties into possibilities: engaging

- Roma families and students in school through dialogic learning. *Cambridge Journal of Education*, 43(4), 451-465. DOI: [10.1080/0305764X.2013.819068](https://doi.org/10.1080/0305764X.2013.819068)
- Flecha, R. (2015). *Successful Educational Actions for Inclusion and Social Cohesion in Europe*. New York: Springer.
- Flecha, R. & Buslon, N. (2016). 50 años después del Informe Coleman. Las actuaciones educativas de éxito sí mejoran los resultados académicos. *International Journal of Sociology of Education*, 5(2), 127-143. DOI: [10.17583/rise.2016.2087](https://doi.org/10.17583/rise.2016.2087)
- Aubert, A.; Flecha, A.; García, C.; Flecha, R.; Racionero, S. (2008). *Aprendizaje dialógico en la sociedad de la información*. Bartzelona: Hipatia Editorial.
- Freire, P. (2003). *Pedagogía del oprimido*. Madrid: Siglo XXI (v.o.1970).
- Giner i Gota, E. (2013). *Amistad deseada: aportaciones de Jesús Gómez y Ramón Flecha que están acercando la realidad a nuestros sueños*. Bartzelona: Hipatia.

- Habermas, J. (1987). *La teoría de la acción comunicativa, Volúmenes I y II*. Madrid: Taurus.
- Hargreaves, L; García-Carrión, R. (2016). Toppling Teacher Domination of Primary Classroom Talk through Dialogic Literary Gatherings in England. *FORUM for promoting 3-19 comprehensive education* 58(1), 15-25.
- Includ-Ed Consortium (2009). *Educational success in Europe*. Brusela: European Commission. Directorate General for Research.
- Jencks, C., et al. (1972). *Inequality: A reassessment of the effect of family and schooling in America*. New York: Basic Books, Inc., Publishers.
- Jencks, C. (1973). *Inequality in Retrospect*. Harvard Educational Review, 43(1), 138-164.
- Vygotsky, L.S. (1978). *Pensamiento y lenguaje*. Madrid: Paidós.
- Vygotsky, L.S. (1979). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Bartzelona: Crítica.

# EKARPENAK

SKOLAE PROGRAMA

## Gure esperientzia SKOLAE n; berdintasunerako hezten

**S**KOLAE programaren helburua da genero berdintasunean edo hezkidetzan hezte, eta ikusita azken egunetan zalan-tza eta ika-mika ugari sortu dela programaren inguruan, zuekin partekatu nahi dugu gure esperientzia, izan ere iazko ikasturtean zentro pilotua izan ginen programa hori inplementatzen. UNESCOk bi lehentasun global ditu, eta horietako bat da genero berdintasunarena. Konpromisoa du hezkuntza-sistemetan genero berdintasuna sustatzeko, eta konpromiso hori gauzatzea sistema horien bitartez, Lehen Hezkuntzatik hasi eta goi mailako ikasketak bitartean, izan esparru formal edo ez-formala, esku hartzeko esparru guztietan, hasi azpiegituren planifikaziotik eta bukatu hezitzaileen prestakuntzan. Helburu hori lortzeko beharra jasotzen dute, bestalde, Europako, Estatuko eta Nafarroako legediek. Ikasturte bukaeran izandako jardunaldietan SKOLAE programan izan ginen 16 zentro pilotuek bizi izandako esperientziak partekatu genituen, eta guztiok adierazi genuen asko ikasi genuela gure getako errealitateetan nola bideratu behar genituen gure asmoak.

Programak hiru jarduketa-eremutan eragiten du. Lehenengoa, irakasle-



**Iruñeko  
Hezitzaile  
Eskolako  
irakasle-  
klostroa**

goaren prestakuntza da. Arlo horrek ahalbidetzen du genero desberdintasuna betiketzen duten mekanismo sozial eta kulturalak ulertzea, nahiz eta jakin gure gizartea berdintasunaren alde agertzen dela, oro har. Bestalde, aditu talde baten aholkularitza teknikoari esker, tresna egokiak eskaintzen dizkie irakasleei. Azkenik, gure hausnarketa pertsonala bera ere sakondu egiten da, eta aukera ematen digu begirada berdintasunetik jartzeko. Bigarren eremua familiak dira, eta horiek aukera daukate euren esperientziak partekatzeko, prestakuntza jaso, edo, besterik ez bada ere, jakiteko berdintasuna nola ari den lantzen eskolan.

Azkenik, hirugarren eremua ikasleekin egiten diren jardueretan oinarritzen da. Ikasleei lagundu egiten diegu beren prozesu pertsonaletan, eta guri dagokigunez, baita profesioaletan ere. Hainbat ekintza egiten ditugu ikasleei berdintasun eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako harremanak ezartzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen laguntzeko, askotariko eremuetan desberdintasunak antzemateko eta garapen osoa ahalbidetzen diguten alternatiba pertsonal eta gizarte mailakoak proposatzeko. Gelako





ohiko ekintza eta edukiek berdintasuna transmititu dezaten ere bada gure eginkizunetako bat. Guk egin nahi dugun lanketa sistematizatzeari esker, lehen baino gehiago egiten ari gara, eta hobeto, izan ere aurrez ez zegoen hezkidetzako programa espezifikorik.

Hona iritsita, eta badakigunez sare sozialetan eta hedabideetan SKO-LAE programaren inguruan hainbat sinesmen eta iritzi zabaldu direla, azalpen batzuk eman nahi ditugu. Genero berdintasunetik sustatzen den Hezkuntza afektibo-sexualak ez du bilatzen, maila nazionaleko komunikabideren batek bere titularran jaso duen moduan, 0 eta 6 urte bitarteko haurrek jolas sexual erotikoak egin ditzaten inposatzea. Garapenaren psikologiatik neska eta mutilen prozesuak ulertzea da kontua. Berdintasunerako hezkuntzaren kontrakoak diren zenbait pertsonak azken asteetan planteatu dutenaren kontra, izan genituen ordu askotako formakuntzan eta ikastetxe desberdinetako irakasleriarekin partekatutako hausnarketetan, inori ez zitzaion bururatu ideia horren antzeko ezer. Aldi honetako ekintza hezigarriak bada, adibidez, baten batek mutil edo neska bati gustuko ez duen zerba

egiten dionean “ez” esaten ikastea, beren gorputzengatik sentitzen duten kuriositatea modu positiboan ulertzea edo zaintzera jolastea libreki aukeratzeari ahalbidetzen duten estereotipatu gabeko materialekin. Iritzi aniztasuna eta gizarte bezala aurrean ditugun erronei aurre egiteko erabakiak hartzea errazten duten kritikak —kasu honetan berdintasunerako hezkuntza—, aberasgarriak eta beharrezkoak dira. Berdintasunaren aldeko neurriak hartzea bermatzeko egiten den lana suntsitzea bilatzen duten kritikak ez digute ekarpenik egiten.

Aita eta amek beren seme-alabak beraien sinesmenen arabera hezteko eskubidea ere planteatu da, bai eta berdintasunerako hezkuntzak ekarriko lukeen ustezko esku-hartzea edo injerentzia ere. Familiek aukera, balio eta sinesmen asko hautatu ditzakete beren haurren hezkuntzan. Eskolak bere hezkuntza-proiektuan edo irakasle bakoitzak bere gelan, aukera pedagogiko asko hautatu eta zehaztu ditzake. Honek guztiak, ezinbestean, bateragarria izan behar du haurtzararen eskubideekin. Haur guztiek, izan neska izan mutil, eskubidea dute diren bezalakoak balora ditzagun, eskubidea dute pertsona gisa esparru guztietan hezteko eta es-

kubidea dute garatzeko askatasunean eta berdintasunean, eta hori guztia bermatu behar dute bai gurasoek eta bai eskolak ere. Beraz, berdintasunerako hezkuntza erakundeei eta familiei dagokigu, gure erantzukizuna da.

Berdintasuna, kasu honetan genero berdintasuna, pertsona eta instituzio bakoitza inplikatzen duen bidea da, eremu aniztatan, ez bakarrik heziketa-eremuan, baina ulertzen dugu honek gizarte garapenean funtsezko papera daukala. Berdintasunean eta berdintasunerako ez heztearen ondorioak horren jasangaitzak egiten zaizkigun datu eta albisteak dira: urtero beren bikote eta bikote ohiek hildako hamarnaka emakume, tratu txar fisiko eta psikologikoak, eraso sexualak, homofobia, soldata-arrakala, lanaren banaketa sexuala, emakumezkoen langabezia tasa altua... edo, besterik gabe, ezin libreki hautatu, generoa tarteko, pertsona bakoitza zoriotsu egiten duena.

Hezkuntza eremuan berdintasunerako lan egiteak gizarte justuago eta oparoago baterantz joatea ahalbidetzen digu, non emakume nahiz gizonezkoak modu osoago batean garatu gaitzkeen eta non gure bizi-aukerak askatasun gehiagorekin hartu ditzakegun.

# GALDEIDAZU

## ZER EKARPEN EGITEN DU JUDOAK MOTRIZITATEAREN GARAPENERAKO ETA KALITATEZKO GORPUTZ-HEZKUNTZARAKO?

**A**skotan entzuten den hitza da motrizitatea, bai aldizkari espezializatuetan bai hezkuntza-eremuan. Egia esan, mugimenduarekin zerikusia duen termino gisa ulertu izan da, baina hitz horrek hori baino askoz gehiago du muinean. Honako lerro hauetan, motrizitatea zer den eta zergatik den garrantzitsua aztertuko da.

Motrizitatearen ideia ulertzen hasteko, haren definizio bat hartuko dugu. Abetek (2015) zera zioen: haurraren ideia integrala kontuan harturik, motrizitatea jakintzaren, emozioen, gorputzaren eta mugimenduaren arteko elkarrekintza aztertzen duen diziplina da. Horrez gain, hark dio motrizitateak garrantzia duela norbanakoaren garapenean eta haurrek munduarekin duten komunikazioan eta adierazpenean.

Abetek azaldu zuen horretan, nabarmen ikusten da motrizitateari, alor fisikoaz gain, beste osagai batzuk gehitzen zaizkiola; alde batetik, jakintza aipatzen du. Jakintzak, pertsonon alor kognitiboarekin lotura zuzena duen kontzeptua izanik, gorputz-adimen dualismotik urruntzen gaituen kontzeptura hurbiltzen du motrizitatea. Ildo horretatik, Zaldivarrek (2014) dio pertsonon alor fisikoa eta alor emozionala bereizi ezinak direla. Horrez gain, gorputz-adimenaren, sentimendugorputzaren eta gorputz-pentsamenduaren loturak goi-mailakoak direla ere azaltzen du.



### MARKEL URRUTIA

#### Desoreka judo klubeko arduradun teknikoa



Bestalde, emozioak ere aipatzen dira definizio horretan, pertsonon alor afektiboari erreferentzia egiten diotenak. Pellicerrek (2012) dio ikaskuntza emozioarekin lotzen denean gehiago irauten duela denboran zehar ikaskuntza horrek eta, ikaskuntza-prozesuan bizitako esperientzia batetik badator (ekintza eta mugimendua erlasionaturik dituen), ikaskuntza hori esanguratsuagoa izango dela. Emozioen, mugimenduen eta ikaskuntza-prozesuen elkarreaginaren berri ematen digu horrek, eta alor afektiboak, fisikoak eta kognitiboak nolabaiteko harremana dutela erakusten digu; aurreko paragrafoan Zaldivarrek zioen horren ildora gerturatzen gaitu horrek. Definizioaren azken zatian, gorputza eta mugimendua aipatzen ditu Abetek. Ponce de Leonek eta Alonso Ruizek (2009) diote motrizitatearen irakaskuntzak ezinbestekoa izan behar duela hezkuntzaren munduan, eta ezinbesteko behar edo motibazio gisa ulertzen du mugimendua. Baieztapen hori egiteko, honako argumentu hauek darabiltzate autore horiek:

- Lehen ikaskuntza gorputzaren eskutik jasotzen dute haurrek, eta gorputza da lehen ekintza-elementua. Haurrak bere energia askotariko jardueren bitartez bideratzea ahalbidetzen du motrizitatearen hezkuntzak (adibidez: mugimendua eta jokoak), horien garapen integrala lortzen saiatzeaz gain.

- Norbanakoaren nortasuna mugimenduren bitartez garatzen da, beharrezkoa baita hori haurraren behar biologiko, kognitibo eta sozio-afektiboetarako.
- Laburbilduz, haurrek, beren gorputzaz jabetu eta inguruarekin elkarrekintzan aritzeaz gain, pentsatu, ikasi, sortu eta arazoei aurre egiten diete, gorputzarekin garatutako ekintzei esker (Ponce de León eta Alonso Ruiz, 2009).

Beste modu batera esanda, giza motrizitateaz hitz egiten denean, Gorputz Hezkuntzaren begirada kontuan hartuta hitz egiten da, eta ez du soilik arlo fisikoa hezten; gizakia bere ingurunearekin eta ingurune horretan dauden objektuekin lotzen edo erlazionatzen du (Sergio, 1999); emozioen, sentimenduen eta giza garapenaren arloetatik ekiten dio (Pazos, 2006). *Motrizitate* terminoak mugimendua, alor fisikoa, alor kognitiboa, alor soziala eta emozioak barnean hartzen dituela ikusirik, esan genezake pertsona bere osotasunean edo era holistiko-integralean ulertzeko bidera eramango gaituela.

### Zergatik da garrantzitsua motrizitatea?

Motrizitatea zer den argitu ondoren, zergatik den horren garrantzitsua azalduko da. Lehenik eta behin, EAEko curriculumaz ezartzen duen 236/2015 Dekretuari egingo zaio aipamena. Han, motrizitateari eta harekin erlazionatzen den konpetentzia motorrari egiten zaio erreferentzia. Horrek, curriculumean babesa emateaz gain, garrantzia ematen dio haurraren garapen integralari, eta baita ongizateari ere. Ongizatearen ideiak izaera integralarekin harreman zuzena dauka, gaitzik ez izatetik harago doan kontzeptua baita; hau da, ongizate fisiko, psikologiko, sozial eta afektiboa barnean hartzen dituen kontzeptua da. Nabarmen uzten du, horrela, ikuspegi holistiko eta global batek duen garrantzia.

Motrizitatearen garrantziarekin jarraituz, pertsonon beharrei egingo zaie erreferentzia. Alde batetik, mugitzeko beharra dago. Lehen hominidoetatik gaur egunera arte, gizakia etengabe mugitu da; frutak zuhaitzetatik hartzen zituenetik ehizara eta ondoren

abeltzaintzara pasatu zenera arte ere, mugimenduan izan da gizakia. Giza migrazioek, gerrek, kolonizazioek, industria-iraultzek... gizakiaren etengabeko mugimendua, aurkikuntza eta garapenerako grina izan dituzte ezaugarri beti. Mugimenduari esker lortu ditu gizakiak bizitzeko behar zituen elikagaiak, bai eta beste baliabide batzuk ere. Beraz, agerian geratu da gizakiaren eta mugimenduaren arteko lotura. Hori horrela, esan daiteke mugimendua berebiziko elementua dela gizakiarentzat; haren bitartez, haurra aktibo dago etengabe, eta, poliki-poliki, jarduera ludiko-motorraren eskutik, inguratzen duen munduaz jabetzen da (Casolo eta Albetazzi, 2013). Hitz horien bidez, hauxe diote bi autore horiek: mugimendua beharrezko den zerbait da gizakiarentzat, eta haurra mugimendu horri esker erlazionatzen da bizi den munduarekin. Perez Mariscalek (2009) zera dio, ordea: gizakiak hainbat behar ditu, eta haurra garatzen doan heinean azaleratzen dira behar horiek; adibidez: dibertsioaren, jokoaren, aurkikuntzen, entseguen edota esperimentazioaren beharra du, bai eta horiek gainditzekoa edota mugitzekoa ere.

Pertsonon beharrek jarraituz, Maslowek 5 mailatan banatzen zituen pertsonon beharrak, eta piramide batean irudikatzen zituen. Oinarrian, behar fisiologikoak egongo lirarteke; bigarrenen, segurtasunekoak; eta, hirugarrenean, giza kidesun beharrak edo gizarte-beharrak. Zergatik azaltzen da hau? Hirugarren mailari so eginez, giza kidesuna edo giza beharren maila aurkituko dugu. Hor barneratuko lirarteke afektua, familia edo afiliazio-beharrak, eta agerian uzten du horrek pertsonon alderdi soziala eta parekideekiko harremanen beharra. Beste alde batetik, bigarren mailako segurtasun-behar horien barnean dago osasuna ere, eta osasuna, Maslowek dioenez, segurtasun-behar moduan identifika daiteke. Esan beharra dago osasunak harreman zuzena duela motrizitatearekin, eta baita mugimenduarekin ere. Izan ere, bizi-estiloen esparruko aldaketak kontuan hartuta, aldaketa handiak izan dira elikadura-ohituretan, eta, teknologiak eguneroko bizitzan hartu duen

**Nerbio-sistemaren heldutasuna, gorputz-eskemaren sendotzea eta lateralitatearen heldutasunaren garapen esanguratsua lortzen da Lehen Hezkuntza garaian, eta, horren ondorioz, koordinazio-gaitasunak ia helduen maila berera iristen dira. Horrez gain, kontuan hartu behar da ikasteko eta garapen motorrerako etapa ere badela adin-tarte hori.**

garrantziaren ondorioz, asko handitu da haurren sedentarisismo-maila (Ruiz-Pons, García-Nieto, González, Mérida, Valenzuela eta Aguirre-Jaime, 2008). Beraz, Maslowek pertsonen beharrez duen begiradatik, osasunaren ikuspegia eta behar sozialen ikuspegia barneratu ditugu, lan honen argudioetan motrizitateari garrantzia emateko orduan.

Motrizitateari garrantzia emateko hurrengo argudioa Lehen Hezkuntzako (hemendik aurrera LH) haurrek pairatzen duten motrizitate-gabezia da. Zenbait ikerketaren arabera (Sudgen eta Keogh, 1990; Hender-son, Knight, Losse eta Jognmans, 1991; Geuze eta Börger, 1993; Revie eta Larkin, 1993; Parker eta Larkin, 2001), eskola-adinean dauden haurren ehuneko handi batek (% 6tik % 22ra) nolabaiteko motrizitate-arazoak izaten du. Bestalde, Van Dellen, Vaessen eta Schoemaker (1990) autoreek diote lehen 7-8 urteetan zehar azaleratzen direla koordinazio-gabeziarekin lotutako arazo horiek, eta adin-tarte hori haurren garapen motorrari dagokion garai edo etapa sentikorra dela (Ruiz, 1987), garai horretan nabariak direlako haur horiek erakusten dituzten gabeziak eskolan behar dituzten gaitasunen eta abilezien arloan.

Azkenik eta amaitzeko, haurren garapen psiko-ebolutiboaren etapa sentikorrek lotuta dauden argudioak



# GALDEIDAZU: JUDOAREN EKARPENA GORPUTZ HEZKUNTZARAKO

daude. Rigalek (2006) zioen, epe sentikor horiek zera direla: memento pribilegiatu batzuk, non abilezia jakin batzuen ikaskuntza erraztasun eta eraginkortasun handiagoarekin gauzatzen den. Nerbio-sistemaren heldutasuna, gorputz-eskemaren sendotzea eta lateralitatearen heldutasunaren garapen esanguratsua lortzen da LH garaian, eta, horren ondorioz, koordinazio-gaitasunak ia helduen maila berera iristen dira. Horrez gain, kontuan hartu behar da ikasteko eta garapen motorrerako etapa ere badela adin-tarte hori (Díaz Lucea, 2003).

Laburbilduz, hauek izan dira artikulu honetan motrizitateari garrantzia emateko aukeratutako argudioak: curriculumaren aipamena, izaera integralaren eta ongizatearen ideiak, pertsonon beharrak (mugimendua, harremana eta osasuna), alor motorreko gabeziak eta garapen psiko-ebolutiboaren etapa sentikorrak.

## Motrizitatea garatzeko eremuak

Aurreko ataletan, zer den motrizitatea eta zergatik den garrantzitsua aztertu da. Orain, motrizitatea non gara daitekeen aztertuko da. Alde batetik, curriculumaren testuingurua dago; Gorputz Hezkuntzarekin eta kompetentzia motorrekin batera, eskola-eremuan garatzen da hori, eta aurrez aipatu dugun 236/2015 Dekretuak mugatzen du. Eremu horren indarguneei dagokienez, alde batetik, curriculumaren babesa dago, bai eta irakasleek duten prestakuntza espezializatua ere, eta, azkenik, motrizitatearen ikuspegi integralaren ulermena dugu (ez da soilik arlo fisikoaz arduratzen, harremanez, emozioez eta arlo kognitiboaz ere arduratzen da). Ahulguneei dagokienez, Gorputz Hezkuntza ikasgaiaren ordu kopuru urria nabarmendu behar da, eta curriculumak eskatzen dizkion helburuak ez lortzera kondenatzen du horrek. Horren ondorioz, ekarpen gutxi egiten dio haurren motrizitatearen garapenerari.

Beste alde batetik, curriculumari ez dagokion testuingurua dugu, eskola-kirolaren eremua, hain zuzen, eta 125/2008 Dekretuak mugatzen du hori, legeari dagokionez. Testuinguru horrek honako indargune hauek dauzka: eskola-kirolak eskaintzen

duen ordutegi zabala, eta pertsona bakoitzak jarduera aukeratzeko dituen aukerak (eskaintza zabala, eta bakoitzaren interesak kontuan hartzen dituen). Ahulgune moduan, ordea, eskola-kirolean aritzen diren begiraleen prestakuntza eskasa aipa daiteke, bai eta arlo horretako langileen lan-baldintza prekarioak (begiraleek talde berarekin errepikatze aukera mugatzen dute), curriculum falta edota goi-mailako kirol-ereduak erreproduzitzea eskola-kiroleko proposamenetan; horren ondorioz, ahaztu egiten da haurren garapen integrala, eredu teknikoak eta bikaintasuna mailak bilatzen baitira kirolean.

Esan daiteke judoa bi eremuetan koka daitekeela, bai hezkuntza formalean (Gorputz Hezkuntzan, kultura motorrean), eta bai eskola-kirolaren programetan. Artikulu honen begiradari dagokionez, eskola-kirolaren eremuan kokatuko da judoa, eta eredu pedagogikoen eta gorputz-hezkuntzaren kalitate-irizpideak hartuko ditu aintzat hemen azaldutakoak.

## Judoa eta motrizitatearen ekarpenak

Judoa gorputz-hezkuntzako arte bat da, XIX .mende amaieran Japonian sortutakoa. Harreman estua izan zuen hezkuntzarekin haren sortzaileak, Jigoro Kanok, Japoniako hezkuntza-sistema berregituratzen urte ugari pasatu baitzituen. Irakasle izan zen, baita ikastetxe bateko zuzendari ere, eta Japoniako Lehen Hezkuntzaren arloko zuzendari izatera ere iritsi zen.

Judoaren sorrerako barne-filosofiak oinarrizko bi ideia zituen muinean, elkarri eragiten ziotenak.

- *Jita kyoei*: ideia honek norberaren hobekuntza-prozesura eta perfekzionamendu-ideietara gerturatuko gaitu, eta, era berean, prozesu horrek munduari eragin positibo bat egitera bideratzen du pertsona (munduaren hobekuntza); ongizatea eta elkarrengana bilatzen ditu (Brousse eta Matsumoto, 1999).
- *Seiryoku zenyo*: energiaren erabilera egokia kontuan hartu behar da. Edozein helburu lortzeko, bakoitzaren energia mental eta fisikoa ahalik eta modu eraginkorrean erabiltzeko ikuspegia

proposatzen da (Kano, 2005).

Nahiz eta gaur egun judoa ulertzeko modu desberdinak egon, kirol-errendimendura bideratutako jarduera gisa ezagutzen da oro har. Datorren atalean azalduko den gorputz hezkuntzaren eraginkortasunarekin eta kalitate-irizpideekin ere erlazio estua du horrek, eta judoaren sorrerako gorputz hezkuntzako proposamena gertuago kokatuko du gaur egungo gorputz-hezkuntzaren kalitatetik.

Judoaren motrizitate-ekarpenei dagokienez, zerrenda honetan datoz garrantzi handienekoak (Arenas Baserra, 2016, eta baita *Judoa, jolasa eta borroka pertsona eraikiz*, 2017):

- Oinarrizko gaitasun motorren garapena ahalbidetzen du.
- Lokomozio-aparatuaren garatea ahalbidetzen du.
- Haurren oreka eta koordinazioa garatzen ditu.
- Nork bere burua ezagutzen eta gorputza kontrolatzen erakusten du.
- Tolerantzia eta autokontrola garatzen ditu.
- Pentsamendu taktikoa estimulatu-tzen du. Kirolaren azkartasunak erabaki azkar eta eraginkorrak hartzera behartzen ditu haurrak hainbat egoeratan.
- Balio prosozialak transmititzen ditu, adibidez: errespetua, motibazioa, autoestimua, hezkuntza, laguntasuna, solidaritatea, talde-lanean aritzearen garrantzia, esfortzuen balioespena.
- Kontaktu fisikoari beldurra galtzen laguntzen du.
- Gorputzaren bidezko adierazpena gauzatzen laguntzen du.
- Norberarenganako konfiantza sortzen laguntzen du.
- Kontzentrazioa handitzen da.
- Sormena estimulatu-tzen du.
- Autoestimua eta autokontrola hobetzen ditu.
- Erlazio personalak garatzen laguntzen du.

(informazio gehiago: [bit.ly/motriz](http://bit.ly/motriz))

## Eredu pedagogikoak eta kalitatea Gorputz Hezkuntzan

Atal honek harreman estua duten bi ideia edo kontzeptu lantzen ditu. Alde batetik, eredu pedagogikoen ideia



dago eta, bestetik, gorputz hezkuntza-aren kalitatearena. Gorputz Hezkuntza-aren didaktikan adituak eta erreferenteak diren autoreen ikuspegiak hartzen ditu kontuan (Tinning, Hernandez eta Hellison, besteak beste), eta gaur egun irakaskuntza-aren begiradan irakaskuntza-estiloetatik eredu pedagogikoetara egin den jauziak justifikatzen ditu lerro hauek.

2000. urtera arte, irakaskuntza-estilo-erdi buruzko bibliografia ugaria zen, baina askoz gehiago dira orduetik hona egin diren argitalpenetan eredu pedagogikoei buruzko aipamenak. Horrek guztiak Gorputz Hezkuntzarekin zuzeneko harremana duela kontuan hartuta eta eredu pedagogiko horri dagokion terminologia gurera ekarriz, gizartearen jarrera lehiakor eta indibidualistek eskaintzen dituzten ereduak gaintu dira, eta proposatu dira ikaskuntza kooperatiboa eta ikaslearen afektibitateak kontuan hartzen dituzten eta trebetasun sozialak, bizikidetzeta eta horrelako aldagaiak era aktiboan lantzen dituzten ereduak. Pedagogiaren esparruaren muinean, aldaketa nabarmena gertatu da protagonistaren rolean; hots, abiapuntua eta ardatza irakaslea izatetik ikaslea izatera pasatu da, eta paradigmen erabateko aldaketa ekarri du horrek (Perez, 2016).

Ondoren, eredu pedagogikoen

zenbait adibide aipatuko dira, hauek, besteak beste: ikaskuntza kooperatiboa, gizartearen eta norbanakoaren ardura (Hellison), alfabetizazio motorra (Whitehead), jarrera-eredua, eredu ludoteknikoak edota eredu desberdinen arteko hibridazioak, besteak beste (informazio gehiago: [bit.ly/epedag](http://bit.ly/epedag)).

Eredu pedagogikoekin jarraituz, eskola-kirola jorratzeko irizpide hezitzaileak kontuan hartzen dituen proposamena egin da artikulu honetan, judoaren irakaskuntzarako proposamen bat, alegia. Hauek dira oinarri pedagogiko horiek (bestelako kirolak lantzeko ere baliagarria izan daitezke, kirol bakoitzaren ezaugarriak kontuan harturik):

- Konstruktibismoaren ideia du oinarri (jakintza-aren eraikuntza, prozesua balioestea eta ez emaitza).
- Haurren garapen psikomotorra aintzat hartzea (taldekatzeko eta landu behar denaren planifikaziorako).
- Praktikan ikuspegi globalistari eustea praktikan (motrizitatean hobekuntza handiagoak, gorputza osotasunean erabiltzeagatik).
- Ludikotasuna, aniztasuna eta beste zenbait irizpide aintzat hartzea.

(informazio gehiago: [bit.ly/opedag](http://bit.ly/opedag))  
Tamalez, askotan ikusten dira goi-

mailako kirol-eredua eraginkorrak erreproduzitzen dituzten eskola-kiroleko proposamenak. Horiek, haurren garapena kontuan ez hartzeaz eta helburu hezitzaileetatik urruntzeaz gain, kirol-dekretuek ezarritako lege-esparruak urratzen dituzte askotan.

Bestalde, Gorputz Hezkuntza-aren kalitatearekin lotutako esparrua daukagu, eta horrek Gorputz Hezkuntza ulertzeko askotariko paradigmatik aztertzea eramango gaitu; hau da, eraginkortasuna vs kalitatea. Bereizketa horretan, eraginkortasunaren eredu psikologia konduktistarekin lotzen da, Tinningek dioenaren arabera, eta kuantifikagarriak eta objektiboak diren aldagaiak neurtzen dituela dio (adibidez: falta kopurua, VO<sub>2</sub>max, txartel horiak, dominak, laktatoa...). Oro har, paradigma eraginkorraren isla nabaritzen zaie kirolei, pres-takuntza fisikora eta errendimendura bideratutako proposamenak izan ohi direlako eta garapen tekniko bilatzen duten proposamenek garrantzia hartzen dutelako. Emaitza edo helburua lortzea bideratutako ekintzak izan ohi dira, eta lehen aipatutako aldagai kuantifikagarriei eman zaie garrantzia. Antolaketari eta kontrolari dago-kienez, garrantzia irakasleak dauka, hura baita edukiaren eta jakintza-aren jabe, eta hark transmititzen die ikasle

## GALDEIDAZU: JUDOAREN EKARPENA GORPUTZ HEZKUNTZARAKO

otzanei. Aginte-estiloari dagokionez, metodo zuzena izaten da erabiliena, kontrola lortu eta kontrol horri eusteko errazena izateaz gain, ikasleak eta horien beharrak eta kezka kontuan hartu gabe kudeatzen baitira saioak.

Kalitatezko paradigma, ordea, jakintzaren eraikuntzarekin eta konstruktibismoarekin lotuta dago. Ikuspegi horrek subjektibotasuna eta aldagai kualitatiboak goraiatzen ditu. Garrantzia prozesuari berari ematen zaio, emaitzari eman beharrean, eta agerian uzten da alderdi kualitativoekin daukan harremana. Proposamen honetan, irakaslearen rola guztiz aldatzen da: kontuan hartzen dira haurren interesak, arauak adosten dira, eta desberdina da ikasleen eta irakaslearen arteko harremana; ikaslea izango da protagonista. Kalitatezko paradigmaren ezaugarri esanguratsuenetako bat hausnarketari ematen zaion garrantzia da (aldagai kualitati-

boek, iritziek, pertzepzioek garrantzia hartzen dute): irakaslea ikertzailearen rolean sartzen da. Bestalde, curriculum ezkutua ere (esplizituki esan ez, baina egunerokotasunean nabaritzen da ekintzen bitartez: lehia, generoa, autoritatea, emozioak eta horrelako azpiataleki buruzko ideia, jarrera eta sinesmenek osatzen dute) garrantzia hartzen du, hori aintzat hartzen baita praktikan, eredu eraginkorrean ez bezala. Tinningek esaten du metodoa erabaki moral edo politikoa ere badela norberaren estiloa izazeraren arabera aukeratzen delako.

Beraz, Gorputz Hezkuntzaren kalitateari buruz hitz egiteko orduan, garrantzitsua izango da ezinbesteko aldagai hauei erreparatzea: hausnarketan oinarritutako praktika egitea, curriculum ezkutua aintzat hartzea, prozesua balioestea eta ez emaitza eta protagonismoa ikasleak berak izatea (informazio gehiago: [bit.ly/HFkalitate](http://bit.ly/HFkalitate)).

### Ondorioak

Amaitzeko eta ondorio gisa, gogoeta hauxe egin genezake: judoaren irakaskuntzarako erabili den ikuspegiak badauka eskola-kirolean egiten diren bestelako proposamenak aberasteko aukera. Izan ere, esaten ausartzen naiz motrizitatearen garapena, eredu pedagogikoetan oinarritutako proposamenak eta Gorputz Hezkuntzaren kalitatearen irizpideak eskola-kirolean lan-esparrua aberasteko baliabide paregabeak direla. Helburu horretarako, judoa instrumentalizatzea erabaki da, judoak bere izazeraren sorreratik baliabideak izan dituelako pertsonen garapena ahalbidetzeko eta mundu hobe sortzeko (Jita kyoei), pedagogia kritikoen helburuekin bat eginez.

**Erreferentziak:** [bit.ly/ref\\_biblio](http://bit.ly/ref_biblio)

**Lan osoa:** [bit.ly/murrutia\\_judo](http://bit.ly/murrutia_judo)

**Informazio gehiago:** <http://www.arrasatejudo.com> / [www.markelurrutia.eus](http://www.markelurrutia.eus)

## FAMILIAREKIN LOTURA DUTEN GATAZKEN EBAZPENA

2019ko Urtarrilean



### GURASOENTZAT

- Ordenan oinarritutako familia gatazken ebazpenerako ikuspuntu berria
- Gure seme alabak pasatzen ari diren errealitate fisiko eta emozionalaren sistemikoko ulermena.
- 10 urte baino gehiago arlo hezigarrian eta terapeutikoan hezkuntza zentroak eta familiak erantzuten

**Ordutegia:** Hilabeteko larunbat batean

**Tokia:** Bilbon

**Zenbatekoa:** 130€/modulua

**MATRÍKULA  
IREKIA**

SEME ALABEKIN GATAZKEN  
EBAZPENERA BIDERATUA, EUSKAL  
HERRIKO PEDAGOGIA  
SISTEMIKOAREN ESKOLAREN  
IKUSPEGITIK.

Informazioa eta izen ematea:

[www.escuelasistemica.com](http://www.escuelasistemica.com)

[info@escuelasistemica.com](mailto:info@escuelasistemica.com)

Itziar Aguirre: 637893079




# ARGITALPENAK



**ISTORIO BAT**  
Marianna Coppo

## PAMIELA


Bost pertsonaia orrialde zuri batean. Istorio baten zain daude, itxaroten, beste ezer egin gabe. Horietako batek, ordea, jolastea erabakitzen du. Bat jolasean, besteak itxaroten. Ez da iristen zain dauden istorio hori. Bestea, bitartean, jolastuz eta marrartzuz bere istorioa eraikitzen ari da. Itxaroteari utzi eta berarekin elkartzen dira gainerakoak.



**Tantak 30(1) 2018**  
Askoren artean

## EHU

*Tantak* aldizkariaren azken zenbakian bi eskolatarako eredu inguruko lan bana dago: Azkoitiko Bizilore eskola komunitatearena eta Antzuolako herri eskolarena. Horrez gain, hezkuntza-ikerkuntzan metodo mistoak erabiltzearen abantailaz hitz egiten du beste lan batek. Eta gorputza eta identitatearen eraikuntzaz beste batek.



**MUSUA**  
Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak

## KATXIPORRETA


CD-liburu bikoitza argitaratu dute: *Musua eta Familia milakolore*. *Musua* disko liburuak 12 kantu eta 12 kontu-kantu jasotzen ditu, Leire Bilbaok eginak eta Xabier Zabalak musikatuak. *Familia milakolore* diskoa aurretik argitaratutako 12 kanturen bilduma da. Ipuinak Miren Amurizak egin ditu eta ilustrazioak Txakur Gorria taldeak.



**HAZI HEZI 27. zenbakia**  
Askoren artean

## XANGORIN


*Hazi Hezi*-ren neguko zenbakia kalean da. Hik Hasik "Mugimendua eta hizkuntza" jardunaldiak antolatu zituen urrian eta bertan esandakoak biltzen dira aldizkariaren gai nagusian. Elkarriketa nagusian Ibon Agirrezabalagak harremanen gainean hitz egiten du. Gainerako ataletan gai ugari jorratzen dira: kirol egokitua, Olentzeroren mundu magikoa eta errealitatea, selfieak...



**ALTZOKO HANDIA ETA KUTIXIREN GEZURRAK**  
Koldo Izagirre

## EREIN

*Handia* filmak egin zuen ezagun Migel Joakin Eleizegi, gigantismo gaixotasuna izan zuen gazte bat, 2,41 metro neurtzera iritsi zena. Haurrei zuzendutako literatur bilduma honek pertsonaia hori du protagonista. Album formatuan argitaratu dira lehen bi liburuak, Koldo Izagirreraren testu poetiko eder banarekin eta Irrimarraren irudiekin.



**SAHARAKO ITSASOA**  
Lur Gallastegi-Aritz Eguren

## ELKAR

Mikel Zarate Haur eta Gazte literatur saria jaso du liburuak. Haizearentzat uda berezia da: gurasoak elkarrekin haserre dabiltzala-eta, nor bere aldetik joan dira oporretan. Bera izeba Eneritzen etxean geratu da. Izebak Saharako lagun batzuen alaba ekarri du etxera uda-pasa: Souhaila. Ez da erraza izango bien arteko harremana, hasieran.

# PROPOSAMENA


## KEBren gida eta APPa

### Komunikazio Ez Bortitza ezagutzeko eta praktikatzeko bi material berri

'Zutani' jolasaren ildoari jarraituz, KBE Komunikazio Ez Bortitza lantzeko eta praktikan jartzeko beste bi material argitaratu berri ditu Nerea Mendizabal psikopedagogoak eta Komunikazio Ez Bortitzeko hezitzaileak: 'KEB Komunikazio Ez Bortitzaren Gida' eta 'Zutani, bizitza on baterako altxor kutxa' app-a.

**H**elduentzako gida batekin eta eta adin desberdinetarako aplikazio digital batekin dator orainoan Nerea Mendizabal psikopedagogo eta KEB Komunikazio Ez Bortitzeko hezitzailea. Helduentzat pentsatuta dagoen materiala da. Umeekin batera lantzeko modukoa ere bada, baina ez umee bakarrik erabiltzekoa, helduekin batera baizik.

Eta gaia KEB Komunikazio Ez Bortitza da. Urteak daramatza Mendizabalek herriz herri eta ikastaro ikastaro KEBren gaineko formazioa ematen. Duela 4 urte 'Zutani' mahai-jolas didaktikoa egin zuen eta horre-



kin gatazkak eta adimen emozionala KEBren bidez lantzeko materiala jarri zuen guztien eskura. Marshall Rosenberg-en KEBren erudian oinarrituta, pertsonen arteko ulermena lantzea du xede. Oraingo bi materialak eduki hori osatzera eta eskaintza zabaltzera datoz.

#### KEBren gida

Batetik, KBE Komunikazio Ez Bortitzeko Gida prestatu du. "Komunikazio Ez Bortitza ezagutu eta praktikatu nahi duenarentzat orientazio bat da

eta bi osagai ditu: gida eta ariketa-ibilbidea. "Gida den heinean, KEBko prozesuko oinarriko elementuak esplikatzeko dira laburki: behaketa, sentimenduak, beharrak eta eskaera", azaltzen du Mendizabalek. "Bakoitzaren inguruko deskribapena egiten da eta adibideak ere agertzen dira. Esate baterako, egoera baten behaketa objektiboa edo subjektiboa izan daiteke. KEBren ikuspegitik, egoera bat modu objektiboan deskribatzeak lagundu egiten duela esplikatzeko da eta adibideak agertzen dira. Sentimen-

duen kasuan, benetako sentimenduen eta balorazio-sentimenduen arteko desberdintasuna argitzen da. Beharrei dagokienez, beharren eta estrategien arteko aldea argitzen da. Eta azkenik, eskaeren kasuan, eskaerak nola egitea komeni den azaltzen da”.

Elementu bakoitza diptiko eta triptikoetan esplikatua dago eta horiek guztiak kartoizko estutxe moduko batean bilduta daude. Horietako triptiko bat da gidaren bigarren osagaia. “Oinarrizko eduki horiek praktikan jartzeko ibilbide bat proposatzen da”, esplikatu du Mendizabalek. “Hau da, ‘nik neure burua ulertzeko eta bestea ulertzeko, zer egingo dut?’ galdera proposatzen du. Hasteko, neure buruari zer gertatzen zaion ikustea, alegia, KEBko lau elementuak erabiliz: behaketa, sentimenduak, beharrak eta eskaera. Gero, besteari zer gertatzen zaion ulertzen saiatu: haren behaketa, sentimenduak, beharrak eta eskaera. Hori dena *post it*-ak erabiliz idazten joango ginatke, eta horretan laguntzeko definizioak eta esaldiak daude diptikoetan. Txuleta moduko bat izango litzateke, pistak ematen ditu eta *post it*-ak erabiliz, bakoitzak bere erantzunak idatzi ditzake, azkenean bakoitzak bere mapa edo ibilbidea osatzeko”.

Azken batean, norberari eta besteari zer gertatzen zaion argituz, irtenbide edo elkarriketa eraginkor baterako baldintzak errazten lagundu dezake.

### ‘Zutani, bizitza on baterako altxor kutxa’ APPa

Bigarren materiala euskarri digitalean aurkeztu du Mendizabalek. KEB lantzeko aplikazio bat da eta tabletara edo telefono mugikorrera deskarga daiteke. “Norbera eta ingurukoak hobeto ezagutzeko tresna da aplikazioa, esan nahi duguna minik egin gabe esateko eta besteak entzuten ikasteko”, Mendizabalen hitzetan.


Aplikazioak hiru atal nagusi ditu. Lehenengoak *Norbera ezagutzeko jolasak* du izena eta hiztegi emozionala lantzeko edo entrenatzeko da. Elementu desberdinak eskaintzen ditu horretarako: emozioak eta beharrak adierazten dituzten marrazkien bikoiteak aurkitzea, musika entzunketak eta ipuin kontaketa. Finean, emo-

zioen mundura iristeko kanal desberdinak erabiltzen dira.

Bigarren atala, *Komunikazioan trebatzen* deiturikoa, lau elementuen entrenamendua da, bete-betean. Lau elementuak deskribatzeaz gain, entrenatzeko esaldiak edo egoerak agertzen dira eta horien aurrean erantzunak eman behar dira. Erantzun bakoitzarekin azalpenak ematen ditu, ariketak eginez ikasten joateko.

Eta hirugarren eta azken atalean, *Nire bizitza gidatzen* izenekoan, dena borobiltzen da. Egoera baten aurrean lau elementuak jarraituz, norberak bere prozesua egiten du, erantzunak bertan idatziz. Ondoren, besteari ibilbidea egiten du, besteari jokaera edo jarrerak ulertzeko. Eta azkenean, landutako bi ibilbideak agertzen dira laburpen gisa, norberarena eta bestearena. “Gidan *post it*-ekin egindako gauza bera da, baina euskarri digitalean”, dio Mendizabalek.

Aplikazioa KEBen murgiltzeko eta norberak bere emozioak ezagutu eta adierazten laguntzeko helburuz planteatutako ariketa multzoa da.




### ‘KEB Komunikazio Ez Bortitzaren GIDA’ eta

### ‘Zutani, bizitza on baterako altxor kutxa’ APPa

#### Harremanetarako

- Nerea Mendizabal
- Tel.: 628 859 282
- E-posta: [info@hartueman.com](mailto:info@hartueman.com)
- Webgunea: [www.hartueman.com](http://www.hartueman.com)





# ATZEKO ATETIK

---



## BESTEIA

**ANA URRUTIA** EGURALDI IRAGARLEA

**G**ogoan dut nire alabak nola kexatzen ziren, gelako mutilek ipurdia ukitu zitelako, edo gona altxatu zitelako, kuleroak ikusi ahal izateko komune-ko ate azpitik burua sartu zutelako... Gogoan dut alaben haserre aurpegia, jolastokia haiena zelako, zeukaten tokiaren % 80 haiek hartzen zutelako futboleko jolasteko, eta ez zeukatelako jolastokia beste kirol edo jolas batzuetarako hartzeko modurik. Gogoan dut hazten eta heltzen zihoazen heinean nola kexatzen ziren beren gelako mutil batzuek, sexu-desiraz begiratzen zitelako, edota “gero eta hobea hago...” eta horrelakoak esaten zizkietelako... Etxean, horrelako jokabideez hitz egiten genuen, eta uko egiten genion horrelakoak naturaltzat hartzeari, edota, irakasle batzuek esaten zigutenaren ildotik (“tira, Ana, badakizu,

ume kontuak!”), garrantzirik ez emateari.

Txikienak esan zidan behin inbidia handia ematen ziola nire eskolako ibilbideak, emakumezkoekin soilik ikasi eta ibili nintzelako, horrelako gauza guztietatik libratu nintzelako.

Arrazoia zuen, horrelako gauza guztietatik libratu nintzen, baina emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean bizi eta hazteko aukera galdu nuen, beste sexukoekin eskubide eta aukera-berdintasunean biziz heltzeko aukera, eta eskola-esperientziaren barnean “bizitza bere osotasunean” bizitzekoa, sexu, sentiberatasun eta identifikazio askotarikoekin.

Emakumeekin soilik hezita, gu “bestetzat” hartzen gintuen mundu batean hazi ginen. Sistema patriarkal batean mugitzen ikasi genuen emakumeok geuk bakarrik

errealitate hartan, horretaz jabetu ez arren. Emakumeak bakarrik geundenez, horrek ez zigun bizitzari aurre egiteko genero-ikuspegirik eman. Ez zizkiguten betaurreko moreak jantzi, ez eta itzaletik historia egin zuten erreferentziatzko emakumeak aipatu ere. Ez genuen Feminismoa ikasi Historia liburuetan, eta ez zigun inoiz inork Angela Davis buruz hitz egin.

Nire alabak hazi egin dira, eta berdintasunaren aldeko borroka partekatzen dugu ikasgelan, jolastokian, jantokietan, korridoreetan. Sistema hau nola zokoratu eta hezkuntzan ikuspegi androzentrikoa nola baztertu ari gara bilatzen.


Ez! Ez dugu gona-altzatze gehiagorik nahi, ez eta baimenik gabe inork inoren ipurdia ukitzerik ere, edota jolastoki bakar batean emakumeen espazioa murrizterik.

CAF  
ELHUYAR  
SARIAK  
2019



ANTOLATZAILEAK

BAIESLEAK



# IGO TRENERA!

INFORMAZIOA ETA OINARRIAK:  
[cafelhuyarsariak.elhuyar.eus](http://cafelhuyarsariak.elhuyar.eus)

LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA:  
2019ko otsailaren 14a

# Hazi Hezi eta Hik Hasi

haziera eta heziketarako euskal aldizkariak



Urtean 4 aldizkari 20 €



Urtean 10 aldizkari 50 €

**Abenduaren 31ra arte *hik hasi* aldizkarian harpidetza eginda, *Hazi Hezi*-ko urtebeteko aldizkariak opari!**

(idatzi [hikhasi@hikhasi.eus](mailto:hikhasi@hikhasi.eus)-era edo deitu 943 371408 telefonora)

Hazi Hezi eta Hik Hasi... familia eta eskola...  
heziketari garrantzia  
ematen diogunon komunitatea

[www.hikhasi.eus](http://www.hikhasi.eus)